

ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2022ko otsailak 18 - 1217. zenbakia

ONGI ETORRI ANTZERKIA HASTERA DOA



Administrazio
Foruak
Kalegora

EUKi
komunitateak

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

ADMINISTRAZIOA

- ✓ Aurrekontua
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Jabeen batzarretan izatea
- ✓ Aktak egitea

KUDEAKETA

- ✓ Obrak
- ✓ Lizentziak eta laguntzak
 - Eusko Jaurlaritza
 - Udala

LEGE AHOLKULARITZA

- ✓ Jabetza horizontala
- ✓ Ezordaindutako enprekaren erreklaiazioa
- ✓ Sormen berriko komunitateen erakuntza

24 ORDUKO ZERBITZUA
Zure eskura jartzen dugu zure komunitateari dagokien informazio guztia urteko egun guztietako 24 orduan

30 URTETIK GORAGOKO ESPERIENTZIAK BERMATZEN GAITU

943 200 358 - www.eukikomunidades.com - ARRETA PERTSONALIZATUA ETA TELEFONUZ: 09-14:00 eta 15:30-19:30

+ osasun gida

Dentistak



arat
Hertz Klinika

"Hertz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51
hertz@klinikaosak.com
www.klinikaosak.com
Toribio Etxebarria, 22 - 3. 848

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibitate handien banabizko zentrua



IRAZABAL
clinica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALTATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnos. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Estetika



abontza
clinica estetica

Dr. J. Ramon Fdez. Cuevas

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - I. behe 943 206 044



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

MAITANE G. INIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustin, 4 beheko. 2. d. 943 537 076 - 688 964 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com



MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. uk. 843-702886

Fisioterapeutak



ANE MENDIA
Fisioterapia

- FISIOTERAPIA
- KINESIOLOGIA
- PIRESIKIN ANIZ
- TRATAMENDUAK
- K-terapiak + SUPLEMENTAZIOAK

FISIOTERAPIA ZENTRUA

ARRAGATA, 20
Tfn. 943 58 26 42
www.aneofitoterapia.com



Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00rta. 13.00rta. 15.00rta. 20.00rta.
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. esk. Tfnos. 943 20 72 17



Unzaga Plaza
Hertz Klinika - Clinica Dental

B. Izaguirre eta M. Orozco

Unzaga Plaza, 5 - 4. ezkerre Tel. 943 70 23 85

Ginekologia



GINECOLOGÍA EIBAR

- Ginekologia
- Obstetria
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com



GASTESI
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentzioak // FACI
Ortodontzia // Implantak // Laser Teknologia

Erebol, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Dietetika/Nutrizioa



NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Mugiborro: 677 551 850



Pasarela bat Errekatxutik Galizia Etorbidera

Ikusita gure Udalak kezka handia daukala jendeak paseatzeko tokiak izan dezan, zera bururatu zait: Iñaki Arriolak eta Jon Iraolak, EHBilduren laguntzarekin, porlan tona batzuk gasta ditzaten: Errekatxutik Urtzailera doan bideak izugarritzko aldapa behera du, eta hortik Galizia Etorbidera (Txontako goiko aldera) izugarritzko aldapa gora dago. Aldapa gora pausorik pauso eta aldapa behera auzorik auzo ibili behar ez izateko, pasarela bat egin dezatela proposatzen dut, Jata tailerreko etxeen aurretik.

Ba al zenekiten etxe horiek, baita Electrociclosekoak ere, Iñaki Arriolaren lagun batek egin zituela? 2020ko otsailean famatu egin zen gure herritik kanpo ere. Konde txiki bat, sarraski handi bat, kondenarik gabea.

Baina goazen harira: Jatako etxeen aurretik pasarela bat egiteak arazo gutxi batzuk ekarriko lizkieke Txomo, Urtzaile eta Jatako bizilagunei. Hala ere, ziur nago bizilagun horiek ulertuko luketela batzuek kalteak jasan behar dituztela besteok pasealekuak izan ditzagun. Urkizun, Asua Errekan, Barakaldon, Electrociclosen eta Barrena-Berrin ez bezala, hor bai bizi ei dira hainbat kargu sozialista. Ziur naiz sakrifizio hori egin eta guretzat eredu izateko prest agertuko direla.

Zer esanik, beste leku batera bizitzera joatea eskainiko zaie, adibidez: egin barik dauden Txonta edo Egazelaiko BOEko etxeetara, Electrociclosekoei eskaini omen dieten moduan.

OHARRA: Esan beharrik ez dago hemengoa sarkasmo osoz idatzi dudala. Ez nuke horrelako Arrioladarik sekula santan defendatuko.

Etzekoandre bat

“Eibar Foball Taldeko 418. bazkidea naiz, baina ez dakit nire eserlekua non dagoen, inoiz ez bainaiz hartan jarri: betidanik kazetariaren lekutik ikusi izan ditut partiduak. Entrenatzaileen pasea lokoan jarrita joaten naiz beti foballera. Sarrera librea dut Ipuruan ibiltzeko. Partidua amaitzean ere, kazetariak bide batetik joan behar izaten dute prentsa aretora heltzeko, baina ni zuzendaritzako kideen gelara joaten naiz beti. Han egoten diren zerbitzariak ere ardo kopa bat eta pintxo bat ateratzen dizkidate ikusi orduko. Hori bai, oraindik ere kronikak idazten ditut, neuretzako diren arren”.

MATEO GUILABERT, kirol kazetaria

“SMI gutxieneko soldata mila eurora igotzearen harira, zorionez Euskal Herrian langileen %4k besterik ez dute jasotzen soldata hori. Soldata horiek balio erantsi gutxiko jardueretan daude. Baldintza hobek eskaintzeko, balio erantsia eta lehiakortasuna handitu behar dira aurretik eta, zoritxarrez, badaude jarduera batzuk zailtasun handiak dituztenak hori baino gehiago ordaintzeko. Dena dela, azken urteetan igoera handiak egon dira: azken bost urteotan %40 igo da SMI. Eta SMI igotzeak ere trabatu egiten du jarduerari eustea”.

EDUARDO ZUBIAURRE, Confebasko presidentea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ODOL-HOTZIAN.- Inolako sentimendurik gabe, hotz-hotzean. “Buruan kabitzen ez dana, odol-hotzian horrela heriotzia egittia”.

ODOLAK BURUA HARTU.- Derramea eta antzerako buruko gaitz larriei buruz esaten da. “Odo-lak burua hartuta hil da gaur goizian”.



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA 943 20 28 72

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

ARGAZKI ARLOA

Maitane Campos eta
Malen Illaramendi

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Arriaga antzokia

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

8.150 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

Fabrikazio mekanikoan eta soldaduran langabetuak prestatzeko programa abiatu dute

>>> Udaleko Ekonomiaren Garapen, Enplegu eta Berrikuntza Sailak, Armeria Eskola Elkartearekin batera, fabrikazio mekanikoa eta soldadura arloetarako prestakuntza programa berria abiatu du, enplegua sustatzeko. Herrian erroldatuta, langabezian eta Lanbiden izena emanda daudenentzat programa da eta gehienez 15 lagunek parte hartu ahal izango dute. Martxotik ekainera bitartean irauango du (irailera arte luzatu ahal izango da), enpresako praktikak, tutoretzak eta laneratze-prozesuan laguntzeko saioak eginez. Programa Armeria Eskolak emango du, eskolako elkar-teraren bitartez.

Programaren garapena hau da: Txirbil-harroketak bidezko mekanizazio gaitasun teknikoak (MF0091) (210 ordu); Garapen pertsonalerako gaitasunak (16 ordu); Eskorga jasotzaileak gidatzeko gaitasun teknikoak (30 ordu); Elektrodo estali bidezko soldadurako gaitasun teknikoak (60 ordu);



Praktikak enpresan (gutxienez 60 ordu); eta laneratze prozesuan laguntza.

Eskaerak martxoaren 1era arte onartuko dituzte, Pegora herritarren arretarako bulegoan edo, bestela, www.eibar.es Udalaren web orrian. Aukeraturako programan parte hartzeko eskaerarekin batera, NAN edo agiri baliokidearen fotokopia, Lanbide egindako inskripzio-aldien txostena eta *curriculum vitae* eguneratua ere aurkeztu beharko dira.

Felix Elkoroiriberi omenaldia egingo diote Untzagako lagunek

>>> Hamabi urte baino gehiagotan presidente eta gidari izan duten Felix Elkoroiriberi omenaldia egingo diote Untzagako jubilatutako etxekoek. Ekitaldia Aratoste Domekan (otsailak 27) izango da, 11:30ean, eta Coliseo antzokian egingo dute. Oraindik ez dute kontatu nahi egunerako zer prestatu duten, baina joan nahi dutenek gonbidapena hartu beharko dute aurretik, plaza mugatuak izango dira eta. Astelehen arratsaldean, 17:30ean, zabalduko dute Coliseoko leiha-



tila eta bertara joan beharko da txartel bila.

Urkizuko medikuntza zentruak atek itxi ditu

>>> Aurreko barixakuan itxi zituena atek Urkizuko dorreetan dagoen Eibariko Medikuntza Zentruak (EMZ), 35 urtez Eibarren zerbitzua ematen aritu eta gero. Adierazi dutenez, belaunaldi-erleborik ez dago eta, beraz, ezin izan dira ordezkatu erretiroa hartu duten medikuak. Gauzak horrela, itxia erabaki dute. Atean ipini duten oharren arabera, LABHEIZE laborategiak Eibarren duen zentruan (Isasi, 9) emango du arreta, astelehenetik barixa-



kura, 08:30etik 10:00era. Informazio gehiago 943 530 060 zenbakira deituta.



Eibarko Herri Unibertsitatearen egitaraua martitzenean hasiko da

>>> Nazional mailako Herri Unibertsitatea egingo da aste honetan eta hurrengoan Euskal Herriko kanpus ezberdinetan. Eibarren, hilaren 22, 23 eta 24rako egitaraua prestatu dute.

Martitzenean Gazte Koordinadora Sozialistako bi militantek "Covid ziurtagiriak areagotutako kontrol soziala" izenburuko hitzaldia emango dute, 17:00etan, Hezkuntza Esparruko San Andres aretoan (hitzaldi guztiak bertan egingo dira). Eguaztenean, berriz, bi hitzaldi egingo dira. Lehen, 12:30ean, "Energia berdeen eta

teknologiaren mamua" izenokoa, gazteleraz, Julen Mailharinen eskutik. Eta, bigarrena, Eibarko etxebizitza asanbladak emango du, 17:00etan, "Etxebizitzaren problematika lantzen" izenburuari jarraituta.

Egitarauarekin amaitzeko, eguaztenean "Krisi ekologikoaren auzia gaur egun, jatorria eta etorkizuna" hitzaldia eskainiko du Mikel Izurietak, 12:30ean. Gero, 14:30ean, bertso-bazkaria egingo da unibertsitateko egoitzan (tiketak 6 eurotan ipiniko dira salgai, hitzaldietan bertan).

Andra-gizonen soldatak parekatzea eskatuko dute pentsionistek astelehenean

>>> Otsailaren 22a gizon eta emakumeen arteko soldata berdintasunaren aldeko Europako Eguna da. Hori dela eta, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak eta, jakina, Eibarkoak ere, "genero arrakala" modura ezagutzen den horren inguruko hausnarketa egin nahi du, "pentsioa edo soldata jasotzerakoan gizon eta emakumeen arteko sistema desorekatu hori ez dela bidezkoa" salatzeko.

Esaten dutenez, "nahiz eta lan-merkatuan emakumeak inoiz baino gehiago parte hartu eta prestakuntza gehiago izan", oraindik ere desberdin-

tasun handia dago emakume eta gizonen soldaten artean. Euskal Autonomia Erkidegoan, generoen arteko aldea % 23koa da eta 2015. urtetik hona 1.70 puntu baino ez da murriztu. Salatzen dutenez, "hilabete amaierara ailegatu ezin diren emakume asko daude Euskal Herrian. 63.000 alargun daude 1.080 euro baino gutxiago, aldarrikatzen dugun pentsio duin horren azpitik kobratzen". Astelehenean, 12:00etan Untzagan egingo duten kontzentrazioan, genero arrakala salatuko dute eta dei berezia egin nahi diete andrei, parte hartzeko.



ASKASIBAR F. Calbetón, 15
943 20 19 42

SPORT TO THE PEOPLE **INTERSPORT**

SPORT LOVERS
Garelako
Kiroletaren onena
PARTEKATZEA da... Ede ez :)

**1€ ZURE 2. UNITATEA
EURO BATEAN**

Otsailaren 17tik 21era

- Promozio balioduna produktu-aukeraketa batean, berrirasunetan izan ezik.
- Bi unitate erosleagatik, eraman zenbafeko txikiena duena, euro bakar batean.
- Euroa gehituko zaio zenbafeko handienaren hasierako prezioari.
- Ezin zaio beste eskaintza edo promozio batzuei gehitu.

FUNEUSKADI Grupo Ashtex

FUNERARIA MUGICA Funeraskadi

TANATORIO EIBAR

TANATORIO CREMATORIO FLORIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27

Elgoibar: Xixillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20

Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



Zabaldute Make in! industria-ekintzailtza programarako izen-ematea

>>> Make in! Debarreneko industria-ekintzailtza programa aurkeztu dute aste honetan, eskualdeko ekintzailtza indartu eta ekimen berriak merkatuarekin konektatzeko asmoz. Egitasmoa Debegesak eta BPTDk (Basque Precision Technology District) jarri dute martxan, eta Debarreneko eta inguruko zenbait agenteren laguntza jaso dute. Programan izena emateko epea martxoaren 7ra arte egongo da zabalik eta egitasmoaren webgunearen birtartez apuntatu daiteke. Parte hartuko duten proiektuen aukeraketa egin ondoren, apirillean hasiko da prozesua.

Make in! programa industria-startupeki zuzentzen zaie. Hau da, industriarekin zeriku-

sia duten negozio-idea berri-tzaileei. Parte-hartzaileek 4.0 industriaren inguruko teknologekin lan egin beharko dute (fabrikazio gehigarria, ikuspegi artifiziala, RV/RA, robotika, adimen artifiziala, Big Data eta IoT), eta ekonomia zirkularrekin eta energiarekin lotuta egon behar dira. Egitasmoaren sustatzaileek hainbat baliabide jarriko dituzte parte-hartzaileen eskura: lan espazioak, finantzazio aukerak, laborategiak, mentorizazioak, ikusgarritasuna, erreferentziatzko industria-sarera sarbidea eta talentura sarrera, besteak beste. Informazio gehiagorako, ekintzaile@debegesa.eus helbidera idatzi edo 943820110 telefono-ra deitu daiteke.

Etenaldia gaueko tren zerbitzuan

>>> Trenen gaueko trafikoa hiru hilabetez eten egingo dute, 22:00etatik 07:00etara, Euskal Trenbide Sareak Unibertsitateko tren-geltokiko (Amañako dorreen azpian) nasen zoladura berrizteko hasi dituen lanengatik. Bestela, egunez, geltokiak normaltasunez funtzionatuko duela jakinarazi dute, "baita asteburu eta gauean ere".



"Hemen ondo birziklatzen dugu" ikurra, orain saltoki txikietan

>>> Mankomunitateak azalera txikiko saltokiek gaikako bilketarekiko duten konpromisoa neurtuko du datozen hilabeteetan, eta erraztasunak ere emango dizkie hondakinak modu egokian birziklatzeko. "Hemen ondo birziklatzen dugu" ikurra eman eta aitortza publikoa egingo die hondakinak modu egokian banatzen dituzten saltokiei.

Iaz azalera handiko saltokietan egin zen lanketaren jarraipena izango da. 2021eko urrian

azalera handiko saltokien birziklapen ohituretan jarri zuten arreta eta 37tik 34k lortu zuten "Hemen ondo birziklatzen dugu" ikurra, hondakinak gaikako birziklatzeko ohitura egokienatik. Aurten, aldiz, azalera txikiko saltokietan jarriko dute fokua. Txikietatik hasiko dira, hondakin gehien sortzen dutelako. Guztira elikagaiak saltzen dituzten 214 saltoki txiki identifikatu dituzte: fruta-dendak, janari-dendak, okindegiak, arraindegiak, harategiak...

Eragin guneetan murgiltzeko bigarren saioa egingo da gaur

>>> Orain dela aste batzuk hasi zen "Eragin Guneetan Murgilduz" izeneko prozesua, Entremigos-Lagun Artean, Nalua eta Matraka! taldeen eskutik eta gaur egingo dute bigarren saioa, 18:30ean Arrate Kultur Elkartean, "Lidergo bizigarriak erakitzen" izenburuari jarraituta. Arduradunen berbetan, "ikuspegi global batetik emakumeek hainbat lurralde eta errealitatean dituzten borroka eta aldarrikapenei buruz hausnartzea" da helburua, "guztiari balio politikoa emanez eta etorkizuneko egiteko modu berriak biltzen jarraituz". Lehenengo saioan Oxlañuj E Emakume Maien Elkartearen partaidetza izan zuten eta, besteak beste,



intzidentzia politikoaren garrantziaz eta eskola politikoaren beharrez mintzatu ziren, kudeaketa, oztopoak eta zailtasunak aztertuta.



Onartu dute 2022ko ekitaldirako aurrekontua

>>> Atzo eguerdian egin zuten 2022. ekitaldirako Aurrekontu Orokorra onartzeko Udalbatzarrara, bideokonferentzia bidez, eta aurreikusita zegoen bezala, gobernu taldearen proposamena onartu egin zen, PSE-EE eta EAJ-PNV alderdietako baiezko botoei esker (Udalbatza osatzen duten 21 zinegotzietatik 15 zinegotzik bozkatu zuten alde). Udaleko beste bi taldeetako ordezkariak (EH Bilduko 5 zinegotziek eta Elkarrekin Podemos-ekoak), berriz, kontrako botoa eman zuten. Horrez gain, 2022erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen arabera, langileen ordainsariaren %2ko igoeira proposatu eta onartu zuten atzoko plenoan.

Urtarrilaren 28an jakinarazi zuten 2022ko ekitaldirako

aurrekontu-akordioa adostu zutela EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeek eta, beraz, sinatutako akordioan oinarrituta, udal aurrekontuaren alde bozkatzeko konpromisoa hartu zuten jeltzaleek, baita bete ere. Jon Iraola alkateak eta negoziazio-prozesuaren ardurduna izan den Ana Telleria Ogasun alorreko zinegotziak akordioaren berri eman zutenean adierazi zuten, "jeltzaleek aurkeztutako zenbait zuzenketa onartu dira eta bi alderdiek adostutako beste zuzenketa batzuk ere sartu dira aurrekontuan". Azpimarratu zuten, "alderdi biek adostasunak lortzeko izan duten borondateari esker" izan da posible oraingo honetan ados ipintzea, adostutako akordioa 1,7 milioi euroko 12 puntutan

oinarriritu dago eta, sozialisten berbetan, "2022ko aurrekontua aberasten du".

Bestetik, EH Bilduk kontrako botoa emango zuela gauza jakina zen, aurreko barixakuan prentsari hala adierazi zioten eta. Gorka Errastik esandakoaren arabera, "aurten deigarria izan da PSEren negoziatzeko interes falta" eta, aurreko ekitaldietan, aurrekontuen negoziazioetan, alderdi guztiekin akordioetara heltzeko saiakerak egin arren, "aurten PSEren udal gobernu adostasun batera ailegatzeko saiatu ere ez dela egin" gaineratu zuen. Aurrekontuari egin zizkieten 33 proposamenak aztertzeke, kontrasterako bilera bakarria izan zutela ere esan zuen, "urtarrilaren hasieran, eta hiru aste ezer jakin barik egon eta gero, bigarren bileran PNVkin akordio batetara heldu eta gainontzeko alderdion proposamenentzat dirurik ez zegoela adierazi zigun PSEk".

AUTUAN

LURRALDEBUSEN GAUEKO ZERBITZUAK OHIKO ORDUTEGIRA BUELTATUKO DIRA

Eusko Jaurlaritzak osasun-larrialdiari lotutako murriztapen ia guztiak bertan behera laga dituela ikusita, Lurraldebusen gaueko zerbitzu guztiak berreskuratzea erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak.

Ildo horretan, Sailak jakinarazi du Lurraldebusen hiriartereko lineen ordutegiak gaurtik (barixakutik) aurrera hasiko direla luzatzen, linea batzuetan. Gainerakoak asteburuan zehar ere luzatzen joango dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero, 900 300 340 doako telefonora deitu (astelehenetik domekara, 08:00etatik 20:00etara).



FELIX BERGARA ZURUTUZA (apaiza) 9. urteurrena (2013-II-22)

"Eskerrak eman nahi dizkizugu, Felix, parrokiaren eta auzoaren alde egindako lan guztiagatik"

HAREN IDAZKARIA (M^o DEL CARMEN FERNANDEZ MEMBRIBÉ), SENIDEAK, JASOKUNDEN ELIZTARRAK ETA EIBARRI LAGUN GUZTIAK

Haren aldeko MEZA ospatuko dugu domekan (hilak 20), Azitaingo Jasokunde Parrokian, goizeko 10:30ean



Etorkizunerako hiri-eredua antolatzekeo plan berria idazten

Aurrera begira, gure herriaren antolamendua nolakoa izango den definitzeko oinarrizko tresna izango den Hiri-Antolamendurako Plan Orokor berria idazten dihardute Udalean. Behin onartuta, planak 8-12 urterako iraupena izango du, aurreikusten dutenez. Besteak beste, udalerriko eraikinen eta zoruen erabilera arautuko du eta, bere garrantziarengatik, Eibarko udalerriko Hirigintza Antolamenduaren Plan Orokorren aurrerapen-dokumentua eta hasierako dokumentu estrategikoa jendaurrean ipini dituzte, herritarrek iradokizunak eta proposamenak egiteko. Horretarako epea apirilaren 11ra artekoa izango da.

Asmo horrekin, aurrerapen-dokumentua eta hasierako dokumentu estrategikoa Udalaren webgunean eta HAPOren berrikuspeneraren webgunean argitaratu dituzte. Horrez gain, Plana idatzi duen taldearekin bilerak egiteko hitzordua eskatu dezakete azalpen osagarriren bat nahi dutenek. Bestela, Aurrerapenari buruzko iradokizunak eta alternatibak ohiko bideak erabiliz aurkeztu beharko dira: udal webgunean, tramitazio elektronikoaren bidez edo Pegorara joanda. Eta, horrez gain, aurrerapenaren edukia azaltzeko panelak jarri dituzte Errebal Plazan.

Gaur egun indarrean dagoen Hiri-Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) 2006an onartu zen eta, horrenbeste urte eta gero, gaur egun dauden beharretara egokitzen den plan berria behar zela aspaldi ikusi zuen Udalak. Gauzak horrela, Eibarko Udalak 2020an hasi zituen Hiri-Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) idazteko lanak. Hala ere, HAPO berri bat egiteko prozesua luzea eta konplexua da eta, behin betiko onartu aurretik, hainbat pauso eman beharra dago.

Gauzak horrela, Eibarko Udalak 2020an hasi zituen Hiri-Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) idazteko lanak. 2020an 1. fasea onartu ondoren, Aurrerakina hurrengo



AMAÑA - PROPOSAMENA 1



Toki bakoitzerako proposamen bat baino gehiago dago eta aukera guztiak plano gainean irudikatu dituzte, azalpenekin

urtean, 2021ean hasi zen. Une honetan martxan dagoen parte hartzeko prozesua HAPOren aurrerakinaren fase horretan kokatzen da, hain zuzen ere.

Beste ezertan hasi baino lehen, herritarrei planaren inguruko informazioa helaraztea izan da lehenbiziko helburua eta, asmo horrekin, HAPOren edukiak sei helburu edo gairen arabera antolatu dituzte, “edukiak ulergarriagoak egiteko”.

Planari buruzko informazioa Udalaren webgunean sarbide zuzena duen atarian (plano-rokorra-eibar.eus) bildu eta eskuragarri ipini dute. Azaldu dutenez, “informazio-atari eta partaidetza-plataforma gisa diseinatu da, galdera mota ezberdinen bitartez ekarpen guztiak modu digitalean jasotzeko”.

Sei helburutan egituratutako edukiak

Herritarren ulermena errazteko, edukiak sei helburutan egituratu dituzte eta horietako bakoitzean gai ezberdinak jorratzen dira: “Gainera, zazpigarren gai bat ireki zen, beste galdera sorta baten bidez ondorio orokorrak jaso ahal izateko”.

Edukiak antolatzekeo erabili duten sailkapen-ereduari jarraituz, lehen helburua lurraldea (natura-ingurunea eta paisaia) babestea da. Bigarrena, berriz, lurzoru publikoak eta planifikatutako aztarnan esku hartzea (espazio libreak eta ekipamenduak). Hirugarren eta laugarren helburuek zeharkako gaiak jorratzen dituzte, hala nola kultura-ondarearen balioa nabarmentzea eta klima-aldaketara egokitutako hiri iraunkorra lortzea. Azkenik, bosgarren eta seigarren helburuek eraikinen, lurraldearen oreka ekonomikoa eta hiri atsegina eta erakargarria (jarduera ekonomikoa, biztanleria eta etxebizitza) dituzte ardatz modura. Azken horretan ere ikuspegi inklusiboaren zeharkako gaia lantzen da.

Aipatutakoekin batera, zazpigarren gune bat ireki zen, “beste gai orokor eta irekiago batzuekin”.



Eibarko toki ezberdinetarako proposamenak plano gainean irudikatu dituzte, bakoitzari gehien gustatzen zaiona ikusi eta besteekin alderatzea errazteko. Informazio zehatza ikusteko, txosten teknikoak eskuratzeko aukera dago. Bestela, Errebal Plazako paneletan aurkituko da garrantzitsuenak, laburbilduta.

Udaletik jakinarazi dutenez, “prestakuntza-fasean, kontsulta eta web-orria artikulatzen dituzten gaiak eta edukiak garatu ziren. Informazio eta parte-hartze epea 2021eko uztailaren 15ean hasi zen eta irailaren 30ean itxi zen eta modu digitalean, www.plaorokorra-eibar.eus webgunearen bidez egin ziren. Herritar guztiek izan zuten parte hartzeko aukera. Jasotako ekarpenak laburtu ondoren, aipatutako webgunean eskuragarri dagoen txostena idatzi dute”.

274 lagunen parte-hartzea

Formatu digitalarekin, “parte-hartzea plurala izatea eta erraztea” nahi izan dutela diote eta guztira 274 lagun hartu dute parte. Generoari begira, gizonen emakumeek baino parte-hartze handiagoa izan dute, baina alde txikiarekin (%50 eta %48, hurrenez hurren). Adinari begiratu gero, partaidetza handiena izan duten adin-taldeak 24-40 eta 41-65 adin-tartekoak dira (%46 eta %47). Gazteagoen eta zaharragoen parte-hartzea askoz txikiagoa izan da (%4 eta %3).

Bestalde, parte hartu duten ia guztiak (%93) Eibarren bizi dira, baina, askoz ere maila apa-

lago batean bada ere, beste udal-erri batzuetan (Gasteiz, Donostia, Bilbo, Oñati, Mendaro, Soraluze, Elgoibar, Barakaldo, Madril, Logroño eta Palma de Mallorca) bizi diren hainbatek ere hartu du parte (%7).

Auzoen arabera parte-hartzea, berriz, honako hau da: bost parte-hartzailetik bi erdialdekoak dira (%39); hamarretik bat, Urkizukoak (%10), Ipurukoak (%10) edo beste eremu batzuetakoak (%9). Gainerakoak Amañan (%9), Jardinetan (%6), Azitainen eta Urkin (%5), Legarren eta San Kristobalen (%3) eta Txontan (%1) bizi dira.

Bestalde, parte hartu dutenen artean, interes gehien piztu duten gaiak “Espazio libreak eta Ekipamenduak” eta “Lurraldearen babesa” izan dira eta atal bi horiek izan dute parte-hartze handiena. Atzetik, hirugarren tokian, “Biztanleria eta Etxebizitza” kokatzen da. Laugarrenean, ia parte-hartzaile kopuru berarekin, “Ondare kulturala” eta “Jasangarritasuna eta Kli-

ma Aldaketa” gaiak daude, eta horiekin batera ageri da “Ondorioak” izeneko azken gaia. Erantzun gutxien jaso duena, berriz, “Jarduera ekonomikoa” izenekoak izan da.

Ingurune naturala eta paisaiari buruzko gaiari lotuta, parte-hartzaile gehienak bat datoz naturaren garrantzia azpimarratzerakoan. Gainera, hamar parte-hartzailetik zazpik (%69) uste dute ingurune naturala hiritik eskura dagoela: “Bestalde, babestu beharreko paisaiei dagokionez, sustatu beharreko jarduerak motei edo ibaiari buruzko proposamenei dagokionez, iritzi desberdinak

jaso dira. Lehenengoan Arrate nabarmentzen da, bigarrenean aisia eta, hirugarrenean, ibaiaren ertzak hobetzea”.

Bai espazio publikoaren gaiak, baita ekipamenduenak ere, adostasun maila handia lortu dute auzo eta hiri mailan, “bietatik falta direla nabarmenduz. Gehienek (%86k) uste dute ez daudela espazio libre eta berdegune nahikorik biztanleentzat, eta %82k uste dute ekipamenduak ere falta direla”.

Oro har, jendeak hiri-pasealekuak eta hiri-ertzeko parkeak nahiago ditu, beste mota batzuetako espazio publikoak baino: “Parte-hartzaileek gure horiei buruz egindako balorazioetan, Untzaga-Txaltxa Zelai ingurua modu positiboan baloratzen dute”.

Kultura-ondarearen gaiari dagokionez, parte-hartzaileen %85ak “garrantzitsua” dela uste du: “Hala ere, Eibarrek interes kulturalerako nahikoa elementu eta eraikin mantentzen dituen ala ez galdetean, erantzun desberdinak jaso dira. Pixka bat handiagoa da (%55) ezetz dioen iritzia”.

Bestalde, ondarearen baldintzen inguruan jendea nahiko ados dago: %82k dio ondarea ez



DOKUMENTUA ESKURATZEKO BIDEAK

- Udalaren webgunean (www.eibar.eus) eta HAPOn berrikuspenaren webgunean (www.planorokorra-eibar.eus).
- Udalaren Hirigintza sailean.
- Errebal Plazan ipini dituzten paneletan.
- Plana idatzi duen taldearekin bilera eskatuta (hitzorduak HAPOn berrikuspenaren webgunearen biartez eskatu behar dira).

IRADOKIZUNAK AURKEZTEKO MODUAK

- Elektronikoki, www.eibar.eus Udalaren webgunearen bidez.
- Pegoran.

dagoela egoera onean eta parte hartu dutenen %84 industria-erakin bereziak kontserbatu eta babestearen alde dago.

Ingurumenaren arloari begira, parte-hartzaile gehienek (hamarretik bederatzik, %89k) garrantzitsutzat jotzen dute jasangarritasunaren eta klima-aldaketaren gaia, eta "oso garrantzitsua" da hamarretik zazpirentzat (%71).

Gainera, ingurumen-alderdi guztiak jo dituzte "oso garrantzitsutzat". Adostasun handiena duten gaiak, berriz, hauek dira: zarata Eibarko arazo gisa (%80) eta udalerrian energia garbiak (berritzagarriak, adibidez) erabiltzearen garrantzia (%93). Atzetik doaz udalerriak eta herriguneak eragindako ibilgailuen problematika (%69 eta %28, hurrenez hurren) eta kaleak oinezkoentzat bilakatzea (%66), bi hauek dira erantzun gehien jaso dituztenak.



Aste honetan egin da hirugarren bilera informatiboa, Beheko Toki jubilatutxean hain zuzen ere.

Gehienak (%85) herri barruan bakarrik oinez mugitzen dira eta, besteek, automobila erabiltzen dute. Aparkaleku ezaren arazoa ere nabarmen-tzeko modukoa da.

Adostasun gutxien sortzen duten gaiak, bestalde, arrapalen, eskailera mekanikoen eta igogailuaren bidezko irisgarri-

tasun-hobekuntzak dira, "nahiz eta %61k positiboki baloratzen dituzten".

Jarduera ekonomikoaren gaiaren inguruan adostasuna da nagusi: parte-hartzaileen %89k uste du Eibarko enplegu-eskaintza eta aniztasuna ez direla nahikoa, eta %95k pentsatzen du garrantzitsua dela

industria-jarduera indartzea. Horrekin batera, gehienek (%85) uste dute nekazaritzaren eta industriaren sektoreetan eskaintza handitu beharra dagoela, baina, "aldi berean, uste dute bi sektore horiek epe luze-ara, etorkizunera begira, aukera gutxi dituztela".

Biztanleriari eta etxebizitzari buruzko atalean, bestalde, etxebizitza-kopurua nahikoa dela uste dute gehienek (%83). Hutsik dauden etxebizitzak gehiegi direla pentsatzen dutenak ere gehienak dira (%83) eta ia guztiek (%91) uste dute garrantzitsua dela etxebizitza-erakinen birgaitze integrala.

Biztanleriari dagokionez, parte-hartzaileek uste dute gaur egun bizi den biztanle-kopurua ondo dagoela (%74), eta %61ek uste du gazteek alde egin dutela edo egiten ari direla "nahi dituzten ezaugarriak dituzten etxebizitzarik ez dutelako aurkitzen".



INA OIARTZABAL ERRASTI

Berdeguna naturalen falta Eibarren

Udalak aurkeztu berri du Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren (HAPO) berrikuspeneraren aurrerapen proposamena. Badirudi proposamen hau herri-tarren partaidetza prozesu baten ondoren idatzi dela.

Hiritar bakoitzak bere iritzia izango du Eibar hiria irudikatzeke orduan, baina benetan zer nahi du etorkizuneko eibartar familia gazte batek edota Eibarrera bizitzera etorri nahi duen beste edonork? Aurkeztutako proposamenetan ezer gutxi aipatzen da natur parke edo zuhaitzez osatutako berdegune ederren beharraz; eta bai, aldiz, iturakeria hutsezko lorategi-eremu, lore-ontzi edo berdegune linealez.

Hamurte baino gehiago daromatzat Eibarren bizitzen eta, nire ustez, inguruan mendi ederrak ba-

ditugu ere, belargune, lorategi eta zuhaitzez betetako natur parkeak falta zaizkio hiriari; eibartarrok lasai egoteko, jolasteko, arnasteko edo txorien kantak entzun ahal izateko espazio naturalak. Herritarren bizi kalitatearen ardura duen agintari batek ezin du espazio naturalik gabeko hiri batekin amestu. Europan hiri inportante gutxi izango dira, hirian bertan, inongo parke naturalik gabekoak.

Nire jaioterrian ere, Deban, bere garaian borroka gogorak izan ziren Calbeton zumardian etxeak eta txaletak egin nahi zituztenen eta kontra zeudenen artean. Baina han behintzat, ameslari batzuei esker, berdegune eder hori mantentzea lortu zen.

Irakurri berri dut, Estaziño-Azitaín bitartean, hormigoizko pasealeku bat egiteko asmoa dagoela, eta horretan Udalak 18 milioi gastatuko dituela. Nola gastatu daiteke horrenbeste diru, eibartar askori eragingo dien kalteaz gain, ingurugiroaren kontrako horrelako astakeria bat egiteko? Nolatan egon daiteke oraindik etxebizitzak egin beharrenden obsesio hori? Orain dela gutxi ere Errebal merkatua bukatu berri dute, eta non gelditu dira merkatu zaharreko zuhaitzak? Hormigoï puska ederra bai, eta berdea den

bakarra pintatutako zementua da.

Gurean natur parkeak sortzeko lekuak topatzea ez da erraza. Hala ere, hiri berdeago batean amesten badugu, hormigoizko pasealekurako bideratuta dauden 18 milioi horiekin hiru natur parke, belargune, lorategi edota baso proposatuko nituzke etorkizun hurbilerako Eibarren bertan, bi hiriaren sarrera-irteeretan eta bestea ia erdigunean:

1.- Lehendabiziko belargunea, Ospitale berritik Mercadona ondo-ko baserri tartean eraikiko nuke. Gaurko egunez, inguru horrek lotsa besterik ez diezaieke eragin eibartarrei; XX. mendeko industrialde dekadente bat dirudi.

2.- Bigarren espazio naturala Barrenan kokatuko nuke, Hijos de Gabilondo espazio osoan. Etxe berririk gabeko eremua eta zuhaitzez osatutako inguru berde zabala ipiniz. Barrena guztian ahalik eta parke handiena eginez, eta pasealekua edota bidegorria bertatik zabalduz. Bere azpialdean eibartarrentzat hainbeste arazo eragiten dituen aparkalekuak ere egin ahalko lirarteke.

3.- Hirugarren natur parkea, etorkizuneko Eibar hiriaren altxorrik ederrenetakoa izan litekeena da. Udaletxetik 4 minutura, ia erdigunean, Zezen plaza eta

Guardia Zibil koartela osatzen duten espazio eder eta zabal horretan guztian kokatuko nuke. Ez exterik eta ez hormigoirik, zuhaitz mota ezberdinez osatutako parke natural berde eta eder bat egiteko leku bikaina dela iruditzen zait; bere jolasparke, frontoi,... eta guzti. Kasu honetan ere, bere azpian nahi beste aparkaleku egiteko aukerarekin.

Mundua txikitzen eta inguru naturala suntsitzen ari gara. Ingurumenaren aldeko borroka potoloak ditugu esku artean: mendietan eukaliptoak hedatzearen kontrako borrokatik hasi eta mundu mailako deforestazioari aurre egiteko borroka zailetaraino (munduan 420 milioi hektarea baso suntsitu dira 1990etik 2020ra bitartean, EBko estatu kide guztien azalera batuta bezainbeste).

Ardura handi horiez gain, Eibar hirian bertan ere, hormigoï, zementu eta etxeak alde batera utzi eta etorkizuneko hiri berde posible batean amesteari ekin beharko liokete gaurko agintariak. Debako alamedaren alde borrokatu ziren ameslari haiek egin zuten bezala, eibartarren bizi kalitatean eta ongizatean pentsatuz, etorkizunera begira, parke natural berde eta zuhaitzi ederrak ezinbesteko elementuak direla uste dut.



Eibarko 45. Antzerki JARDUNALDIAK

Egitarau osoa
deskargatzeko



otsailak 23
(EGUAZTENA)

“EL VIAJE A NINGUNA PARTE”

Fernando Fernan Gómez-en TRAGIKOMEDIA

Coliseoan, 19:00etan / 115 minutu

Teatro Fernan Gómez & Teatro Arriaga

Antzezleak: Patxo Telleria, Mikel Losada, Ramon Barea, Itziar Lazkano, Irene Bau, Aiora Sedano, Doego Perez, Adrian Garcia de los Ojos

Zuzendaria: Ramon Barea

Ignacio del Moralek antzerkirako egindako bertasioak aktore eta zuzendari mitikoaren izen bereko eleberraren eta geroagoko filmaren nortasunari leial eusten dio. Ramon Barea ikuski-zun honetako aktore eta zuzendariak oso obra zaindua eraiki du, Fernan Gomez-en umore eta sokarroneria bereizgarriak gordetzen dituena. Lanak antzerkigintzan jarduteko modu bat azaltzen digu, konpainia ibiltari batean. Lanbideetan bokaziozkoena den ogibideari egindako omenaldia da. Mendez mende iraun eta birsortzen dena zelako ogibidea! Hil eta birsortu egiten dena: zinema, soinudun zinema, irratia, telebista, internet... etorri diren arren.



otsailak 24
(EGUENA)

“MAGALLANES Y ELCANO. EL VIAJE”

Taldean egindako TRAGIKOMEDIA

Coliseoan, 19:00etan / 80 minutu

Ajidanha & Eme2

Antzezleak: Nuria Cuadrado, Pedro Diogo

Zuzendaria: Jose C. Garcia

Portugaldik Magallanes eta Elkanoren oso espedizio ezagunaren bertasio dibertigarrian talentu ikaragarritzko eta gorputz-kontrol bikaineko bi aktorek, zilindro metaliko batzuk baliatuz, gure irudimenak hegan egin dezala eta zazpi itsasotako abentura epiko batean esploratzaile gisa lagun diezaiegun lortzen dute. Lan honek hainbat kulturen elkarbizitza, kode eta hizkuntza globalak eta orain dela urte batzuk toki ezezagunetara egindako bidaietatik geratu zaigun identitate-herentzia aztertzen ditu. Baina obra honetan liskarrak, ametsak eta beldurrak ere azalduko dira; azken batean, gure gizatasunarekin bat egingo dugu.



<<< RAMON BAREA
Aktorea >>>

“Paradoxikoa izan daiteke, baina lotsak eraman ninduen antzerkira”

Euskal Herriko antzerkiaren izen handienetako bat da Ramon Barea (Bilbo, 1949). 70. hamarkadan antzerkiaren pozoia sartu zitzaion gorputzean eta oraindik ez du antidotorik aurkitu. Ezta aurkitzeko gogorik ere! Antzerkiaren bokazioari, ikasle-irakasle figurei eta, oro har, antzerkigileek bizi dutenari buruz jardungo du Coliseoan, martitzenean, 19:00etan, Mikel Losadarekin Antzerki Jardunaldien aurkezpenean.

Nolako solasaldia izango duzu Mikel Losadarekin?


Mikel orain dela urte asko eza-gutu nuen eta gauza asko partekatu ditugu. 17 edo 18 urterekin Bilboko Juan Antxieta antzerki-eskolan hasi zen eta ni nintzen bertako koordinatzailea. Bere adina kontuan hartuta, nabarmentzen zen ikaslea zen. Harrezkero, hainbatetan ibili gara elkarlanean eta ‘El viaje a ninguna parte’ antzezlanean berriz elkartu gara. Hain zuzen ere, antzezlan honetan antzerkigintzan aritu edo ez erabakitzen dabilen gazte baten papera egiten du Mikelek, eta nik konpainiaren beterano batena. Beraz, antzezlanak solasaldiarekin zerikusia izango du, antzerkiaren pozoia ardatz hartuta. Batak, hasten dagoenaren ikuspuntutik; eta, bestek, beteranoaren begiradatik.

Antzerkigintzan ibilbide luzea egiten duzu, baina hasiberria ere

izan zinen. Nola gogoratzen duzu sasoi hura?

Paradoxikoa izan daiteke, baina lotsak eraman ninduen antzerkira. Eszenatoki gainean mundua gelditu egiten zela ikusten nuen, bertan zeudenek mundua kontrolatzen zutela, eta nerabe lotsati batentzat segurtasun falta menderatzeko modua zen. Antzerki ikusle konpultsiboa izan nintzelako hasi nintzen antzerkia egiten. Bilboko Alde Zaharreko gazte klubean hasi nintzen antzerkigintzan, jende zaharragoarekin. Gero, bulego batean lan egiten nuen bitartean, soldata-

“Antzerki-irakasleak edukitzea gustatuko litzaidake”



ren zati bat antzerkia ikusteko gastatzen nuen. Antzerkiarekiko bokazio arraroa izan dut.

Arraroa zergatik?

Ama Solokoetxeko eskolako irakaslea zen eta antzerkia egiten zuen ikasleekin. Nire bizitzako lehen antzezpena bertan egin nuen eta, horren ondoren, neure buruari zin egin nion inoiz gehiago ez nintzela eszenatoki gainera igoko. Gabonetako alegoria bat zen eta, ez dakit zergatik, andaluziarrez jantzi ninduten. Lotsa sentitu nuen eta ez nuen antzerkiaz ezer gehiago jakin nahi.

Ba ia bizitza osoa pasatu duzu eszenatoki gainean! Zergatik?

Gustura sentitu naizelako, uste dut. Eszenatokia espazio arriskutsua da, baina kontrolatzen amaitzen duzu. Bizitza gelditu daitekeen toki bakarra da artearen munduan. Bertan, bizi dugun mundu kaotiko, arris-

kutsu eta gorabeheratsua ordenatu eta kontrolatu dezakegu. Antzerkia errepikapenaren artea da. Hain zuzen ere, obra bat gero eta gehiago egin, pertsonaia orduan eta gehiago eza-gutu, zoriontsuagoa zara.

Antzerkigintzan hasi zinenean, irakaslerik izan zenuen?

Ez. 1969an ‘Comicos de la lengua’ izeneko antzerki-elkartea sortu genuen. Alex Angulo, Santiago Gurrutxaga eta abarrek antzerkia egiten hasi nintzenean, Euskal Herrian ez zegoen antzerkilari profesionalik, irakaslerik edo konpainiarik. Autodidaktak izan ginen, eta ekinez eta akatsak eginez gure teknika asmatu genuen. Dena dela, irakasleak edukitzea gustatuko litzaidake. Zentzu horretan Mikelek nik baino zorte gehiago izan duela uste dut, baina horrela izan behar da, gauzek hobera egin behar dutelako.



<<< MIKEL LOSADA
Aktorea >>>

“Antzerkia probatu nuenean ez nuen beste ezer egin nahi izan”

Ramon Bareak bezala, Mikel Losadak (Ermua, 1978) gaztetatik bizi izan du antzerkia. Beteranoarekin alderatuz, ostera, berak izan zuen maisu-figura bat, Barea, hain zuzen ere (eta Felipe Loza). Bilboko Juan Antxieta antzerki-eskolan ezagutu zuten elkar eta pare bat hamarkada geroago elkarlanean jarraitzen dute oraindik. ‘El viaje a ninguna parte’ antzezlana eskainiko dute eguaztenean, 19:00etan.

Ramon Bareak 17 edo 18 urte zenituenean ezagutu zintuela esan digu. Nola gogoratzen duzu sasoi hura?

Amak apuntatu zidan Juan Antxieta antzerki-eskolan. Ermuan antzerkia egiten nuen eta asko gustatzen zitzaidan, eta amak eskola bat bilatzen lagundu zidan. Ama Ramon Barearen oso zalea zen eta, Bilbon antzerki-eskola zuela ikusi zuenez, haren eskolan apuntatu ninduen. Nik ez nuen Barea ezagutzen, amak kontatutakoagatik bakarrik. Lehenengo urtean Felipe Lozarekin ibili nintzen, oso irakasle ona. Gero, ez dakit nire lehen edo bigarren urtean izan zen, baina laugarren ikasturtean zeudenean kurtso amaierako obra bat egin behar zuten eta Ramonek eurekin zerbait egiteko deitu zidan. Paper txikia izango zela pentsatu nuen, baina ez, protagonista zen. Harrezkero, Ramonekin lan asko

egin dut eta asko maite dut, bai pertsonalki, bai profesionalki.

Bareak irakasle-figura bete zuten zurekin?

Niretzat aitabitxi moduko bat izan da. Berarekin hasi nintzen lanean eta gero konpainia askok deitu ninduten. Ramonek profesioa irakatsi dit: antzerkia nola maitatu eta errespetatu.

Urteak egin dituzu antzerki-gintzan. Dagoeneko irakasle-rola hartu duzula uste duzu?

Ez, ezta gutxiago ere. Ramon zuzendaria da eta ondo daki irakasten. Ni, ostera, ez naiz zuzendaria, aktorea besterik ez. Beno, aspaldi irakasle izan nintzen antzerki-eskola batean, baina ez, ez dut irakasle izateko balio.

Antzerkian gazte hasi zinen, baina nola sortu zitzaizun antzerkiarekiko maitasuna?

Antzerkia egiten sartu zitzaidan antzerkiaren pozoia, aurretik ez nuelako aktore izateko asmorik. Amak sartu ninduen antzerkian. Ez nintzen oso ikasle ona eta amak antzerkia egiten zuen Ermuan. “Antzerkian testuak ikasi egin behar dira, istorio asko ikasten dituzu, lankide ona izan behar zara eta erropenkin ondo antolatuta behar zara”, esaten zidan, eta horregatik apuntatu ninduen Ermuko antzerki-tailer batera. Berak ez zekiena zen urte asko egingo nituela antzerkira emanda. Gero, antzerkia probatu nue-

nean ez nuen beste ezer egin nahi izan.

Eibarrera ekarriko duzuen antzezlana antzerkiarekin eta bokazioarekin zerikusia du. Bokaziozko ogibidea da antzerkia?

Bai. ‘El viaje a ninguna parte’ antzezlana 50. hamarkadako konpainia txiki baten istorioa kontatzen du. Ez dute etxerik, bidean daude beti, herriz herri. Gaur egun guretzat ere ez da erraza, baina sasoi hartan txartoago bizi ziren.

Zu ere herriz herri bizi zara, baina orain jaioterriaren ondoan aritzea tokatzen zaizu. Coliseoko eszenatokira igotzeko gogoz?

Berezia izango da niretzat, amarekin txikitatik joan naitelako Eibarko Antzerki Jardunaldietara. Gainera, lagunak ditut Eibarren eta Ermutik ere jendea joatea espero dut.

“Amarekin txikitatik joan naiz Eibarko Antzerki Jardunaldietara”



Irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonari laguntzen

Gure gizarteko pertsona askok irakurmen-arazoak dituzte hainbat arrazoiengatik (immigrazioa, eskolatzeko eskasa, dislexia, zahartzarua, adimen-desgaitasuna...). Informazioan eta ezagutzan oinarritutako gizarte batean, jende asko baztertua geratzen da irakurtzeko zailtasunagatik. IRAKURKETA ERRAZAK arazo hori arintzen lagunduko duten irribideak eman nahi ditu. Eibarren Irakurketa Errazaren kontzeptua zabaltzeko asmoz, Eibarko Udal Liburutegiak egun erdiko jardunaldia antolatu du martxoaren 3an. Zer dago Irakurketa Erraza kontzeptuaren atzean?

Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza elkartearen datuen arabera, herritarren %30ek zailtasunak dituzte normaltasunez irakurtzeko. Irakurketa Errazak irribideak eman nahi ditu egoera hori hobetzen laguntzeko. Irakurle berriak sortzen, irakurzaletasuna berreskuratzen eta irakurketa-maila hobetzen laguntzen du.

Irakurketa Errazak bi printzipio ditu oinarri: irakurketaren demokrazia eta kolektibo jakin batzuen gizarteratzea, irakurketaren bidez. Haren

helburua da irakurketa hurbiltzea irakurtzeko edo ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonengana.

Bi kolektibo mota daude irakurtzeko zailtasunak dituztenen artean: alde batetik irakurtzeko zailtasun iraganakorrak dituzten pertsonak: immigrazioa, irakurtzen berandu hasi izana, eskolatzeko eskasa, ikaskuntza-nahasmenduak... Eta, bestetik, irakurtzeko zailtasun iraunkorrak dituzten pertsonak: adimen-desgaitasuna, zahartzarua...

Kolektibo zabala da, zantza barik, eta material espezifikoaren funts bat behar du irakurketaz gozatu ahal izateko, kultura eta informaziorako eskubidea izateko, gainerako herritarrek bezala.

Pertsona asko baztertua geratzen dira irakurtzeko zailtasunagatik

Martxoaren 3ko saio berezia
Juan San Martin liburutegian
Egun horretan, martxoaren 3an, Irakurketa Errazaren inguruko saio berezia egingo da Juan San Martin Liburutegian, bertako Irakurketa Errazaren funts bibliografikoa aurkeztu asmoz. Lehenengo,



Irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonak irakurtzeko eta ulertzeko arreta bereziz prestatutako liburuak, dokumentuak, webguneak... daude Irakurketa Errazeko materialen artean

Blanca Mata 'Lectura Fácil Euskadi - Irakurketa Erraza' elkarteko arduradunak Irakurketa Errazaren kontzeptua eta hura garatzeko aukerak aurkezteko hitzaldia eskainiko du 17:30ean.

Hitzaldiaren ondoren, herriko zenbait elkartekin (ATZEGI, AGIFES, EPA eta San Andres egoitza) eta erabiltzaileen gurasoekin mahai-ingurua egingo da, Irakurketa Errazak irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen nola laguntzen dien azaltzeko.

Espazio berriak udal liburutegian

Juan San Martin Liburutegia 2014tik ari da alor hori lantzen. "Azken hilabeteetan Irakurketa Errazeko materialetarako genuen espazioa aldatu dugu, eta leku bat egin diegu bai helduentzako liburutegian eta baita haur liburutegian ere", azaldu digu Eva Alberdi liburutegiko arduradunak.

Irakurketa Errazaren berezko materialez gain, "Interesgunea" zabaldu dute irakurketa eskuragarriko materialekin, alegia, normaltasunez irakurtzea eragozten duen zailtasunen bat duten pertsonengan pentsatutako materialekin.

Hiru irakurketa-klub daude Eibarko liburutegian eta Irakurketa Errazeko liburuen loteak eramaten dituzte. "Pandemiaren eraginez ohiko jarduna moldatu egin da, baina elkarteek asko erabiltzen dituzte liburu hauek. Gainera, Liburutegian euskaraz dauden Irakurketa Errazeko ia liburu guztiak dituzte eta asko erabiltzen dira", esan digu Evak.

Irakurtzea, plazera eta eskubidea

"Jasangarritasun soziala lortzeko funtsezko elementuetako bat —10 GJHetan islatuta dagoena—, zalantzarik gabe, informazioa eskuratzeko bidea demokratizatzea da. Pertsona

guztien artean benetako aukera-berdintasuna lortzeko, eta pertsona horiek kultura, literatura eta informazioa eskuratu ahal dezaten, pertsona guztiek beren eskubideak maila berean baliatzea eragozten duten oztopoak kendu behar dira", azaldu digu Evak. Informazioan eta ezagutzan oinarritutako gizarte batean, pertsona asko baztertuta geratzen dira irakurtzeko zailtasunagatik; "Pertsona horiek ezin dute irakurketa komunikatzeko, informatzeko, prestatzeko edo aisialdirako bitarteko gisa erabili", dio.

Irakurketa Errazeko materialak zera dira: irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen irakurtzeko eta ulertzeko arreta bereziz prestatutako liburuak, dokumentuak, webguneak eta halakoak. IFLA erakundeak (Liburutegien Elkarte eta Erakunde Nazioarteko Federazioa) emandako jarraibideak betetzen dituzte, edu-

kiari, hizkuntzari eta formari dagokienez.

Irakurketa errazaren kontzeptua eta bilakaera 70. hamarkadan sortu zen, Europako iparraldeko herrialdeetan. Espainiara 2002an iritsi zen Catalunya *Asociació Lectura Fácil* delakoaren eskutik, eta orain arte lurralde horretan bakarrik izan du garapen handia. Euskal Autonomia Erkidegoan 2012an sortu zen *Lectura fácil-Irakurketa Erraza* elkarte. Irakurketa-demokraziaren eta, irakurketaren bidez, gizarteratzearen printzipioan oinarrituta, Irakurketa Erraza pertsona horien bizi-kalitatea aberasteko bidea da. ■

Informazio gehiago elkartearen webgunean:





Imanol Magro

Imanol Magro

Kafe hotza

11 urte beteko dira laster aita joan zenetik. Bazkalosteko kafea hartzera irten zen azkenekoz agurtu genuenean. Kafea ere eskatu zuen tabernan, baina ez zuen bukatu. Kikarako azken tragoa hoztu egin zitzaion. Hiru hilabete dira gure ama joan zela. Ospitalean agurtu genuen. Kafezale porrokatua zen, eta bazkaloste hartan, egunerok bezala, bi kafe igo genituen elkarrekin hartzeko. Haiek ez genituen hartu. Hantxe gelditu ziren plastikozko bi edalontziak, hozten.

Kafea xigorturiko fruitu ale batzuen zukua baino askoz gehiago da. Edariaren balio sinbolikoa askoz urrunago iristen da. Kafe askok markatzen dute gure bizitza. Juntadizoa egiteko amua dira, bisitaren aitzakia, hitzordua zehaztu eta hitz egiteko gonbi-

"Denok ditugu ahaztuko ez ditugun kafeak, eta denok ditugu kafeak zorretan. Denok hitz emanda diogu norbaiti kafe bat hartuko dugula noizbait"

dapen formala. Baita kafearen mikatza gustuko ez dutenentzat ere. Kikarako keari putz egitea testuinguru perfektua da konfesioak azaleratu, beldurrak agertu, konfabulazioak prestatu, memoria astindu, promesak egin edota gezur ederrak esateko.

Denok ditugu ahaztuko ez ditugun kafeak, eta denok ditugu kafeak zorretan. Denok hitz emanda diogu norbaiti kafe bat hartuko dugula noizbait ("Ea elkartzen garen pandemia zikin hau amaitzen denean"). Eta hortxe dugu asmo edo nahi hori betetzear, beti aukera hobea baten zain. Sentimenduen beharrak prokrastinatzen adituak gara guztiok. Hala bada, aholku bat, hartu telefonoa eta egin hitzordu hori. Hartu kafe hori, pertsona horrekin edo horiekin. Ez dio axola hutsa edo ebaki. Eskertuko duzu. Izan ere, urteekin, gehiago oroitzen ditugu hartu gabe gelditu ziren kafeak hartu genituenak baino.



David Karba

David Karba

Vivalaguerra

Errusia, Ukraina edo AEB aldetik gerra doinuak entzuten ditugun honetan, 'Standstill' talde kataluniarraren disko batekin gogoratu naiz. 'VIVALAGUERRA' da bere izenburua eta edukiak zerikusi gutxi du lurralde batengatik egiten den gerra politiko batekin. Azken finean, musika talde batek aurrera egiteko egin behar duen gerrari buruz egiten du berba eta, hain zuzen ere, taldea mundu guztiaren ahotan jarri zuen albuma izan zen, bar-

ne arazoan ondorioz taldea desegiteko zorian egotetik denbora gutxira.

"Testu honek pandemiaren ondorioz bidean gelditu diren taldeen omenaldi txiki bezala balio dezala"

Horrelako gauzak gertatzen dira: batzuek hiltzeraino egiten dute proiektuaren alde, beste batzuk beste norabide batean doaz, batzuek motibazioa galtzen dute eta taldea uzten dute. Hortik aurrera bi gauza gertatu daitezke: indartsuago bilakatzea edo saiakeran hiltzea. Azken bi urteak bereziki zailak izan dira musika taldeentzat: entseatzeko arazoak, jotzeko

arazoak, kontzertu atzeratuak edo bertan behera geratzen diren kontzertuak, publikoa eserita, aforoek eta murrizketek baldintzatutako ekonomia... Azken neurrian, ilusioarekin amaitu dezakeen zoramena.

Beste banda handi bat ikustea gogoratzen dut, Bilboko Vulk taldea, Gasteizeko Jimmy Jazz aretoan, publikoa eserita, eta zera pentsatu nuen: "Arraioa, zeinen gogorra izan behar den eurentzat". Batzuek esango dute okerragoa dela kontzerturik ez jotzea, baina talde batzuk ezin dira direna izan publikoaren interakzio eta konplizitate barik, hori horrela da. Orain dela bi aste estatu guztian zehar eramango dien bira hasi zuten, eta areto askotan eta jaialdi ospetsuetan joko dute editatu berri duten diskoarekin (Vulk ez da), gauzak ondo.

Testu honek pandemiaren ondorioz bidean gelditu diren taldeen omenaldi txiki bezala balio dezala eta, noski, baita indartsuago atera direnentzat ere.

"Y un aplauso... ¿Salimos o no, seguimos o no?" – La mirada de los mil metros (Vivalaguerra, 2006)



North School, Debarreneko rap maisuak

Renk C.A, Polo Opuesto (M. Rek eta Katxo), Esco, A. White, Emeka, DRJ, Ash eta Heissek rap ikuskizuna eskainiko dute bihar, 20:00etan, Errebal Plazan. Artista hauek North School osatzen dute, rap eta hip-hop doinuen inguruan Debarrenan sortutako kolektiboa.

Hasierako laurekin egon gara estudio, bilgune eta sorleku bezala erabiltzen duten lokalean. North School ez da eskola bat, baina raparen inguruan asko irakatsi digute.

TESTUA ETA ARGAZKIA: EKHI BELAR

BIDEOA: YANIRE SAGREDO

Nola elkartu zineten North School kolektiboaren barruan?

KATXO: Xunek (Renk C.A) North School sortzeko proiektua zuela-eta hurbildu nintzen eurengana, eta, gero, Martinek (M. Rek) eta nik Polo Opuesto taldea sortu genuen orain dela bost urte.

M. REK: Hasieran, Katxo (Mikel Oregi) eta ni gure kontura ibiltzen ginen rapeatzen, baina behin Sorluzeko jaietan elkartu ginen kasualitatez, elkarrekin rapeatzen hasi ginen eta oso ondo moldatu ginen.

ESCO: Ni orain dela bost urte hasi nintzen idazten, baina aspalditik entzuten nituen Xune, Polo Opuesto eta abarrak. Orain dela urtebete cypher bat (raperoen arteko bat-bateko kolaborazioa) egin genuen Soba kolektibokoekin eta, horren harira, North Schoolen sartu ginen DRJ eta ni.

RENK C.A: 2016an North School sortzeko proiektua nuen buruan eta inguruko lagunak eta ezagunak sartu nituen bertan. Azkenean, North School musika proiektu bat baino gehiago bilakatu da, lagunak gara.

Kide kopuru jakin bat dago North Schoolen?

KATXO: WhatsApp taldean zortzi lagun gaude, baina atzean dagoen jendea, kontzertuetara etortzen direnak, grabaketak egiten dituztenak... gehiago dira. Horiek ere North Schoolekoak dira. Gurea ez da kolektibo itxia.

RENK C.A: Urtero agertzen da jende berria, artista berriak ezagutzen ditugu eta beso-zabalik jasotzen ditugu.

M. REK: North School kolektibo musikal bat egiteko asmoz



sortu zen, baina azkenean harreman estua sortu da gure artean eta familia handia osatu dugu.

Rap abeslari guztiek ezizena erabiltzen duzue. Nola egiten duzue aukeraketa hori?

KATXO: Nire kasuan, Cacho abizena dut. Orduan, letra batzuk aldatu ditut eta kitto. Escoren kasuan, Jon Escolar da bera; M. Rek Martin Rekalderen laburpen bat da...

M. REK: Graffitiak egiten nituenean Rek idazten nuen, baina gure artean Renk bazegoenez, M. Rek jarri nuen, ezberdintzeko.

KATXO: Ezizenek garenarekin edo gure izaerarekin zerikusia dute. Hala ere, izenek ez dute garrantzi handiegirik, egiten duzun musikak baizik.

Batzuetan bakarka egiten duzue, beste batzuetan talde bezala, kolaborazioak egiten dituzue... Nola funtzionatzen duzue kolektibo bezala?

M. REK: Estilo librean jarduten dugu, bakoitzak nahi duen moduan. Batzuetan abesti bat sortzen duzu eta zuk zeuk interpretatu nahi duzu, baina hurrengo batean beste batekin abestea gustatuko litzaizuke. Ditugun sentsazioen arabera erabakitzen dugu. North School ez da guztiok batera abesteko sortu dugun zerbait. Izen horren barruan sartzen gara, elkarlana egiten dugu, estudioa muntatu dugu... baina kantuak egiteko orduan askeak gara. Adibidez, Katxo eta nik Polo Opuesto taldea dugu, baina abesti bat Escorekin kantatu nahi badut, Katxok parte hartu gabe, ez dago arazorik.

ESCO: Eragingarria da hori, batekin eta besteekin gauzak egiteko aukera sortzen delako. Adibidez, zerbait idazten dugunean, Whatsapp taldera bidaltzen dugu besteei erakusteko, euren ekarpenak jasotzeko edo dena delakoa, eta hortik kolaborazioak irteten dira.

KATXO: Gainera, denok modu ezberdinean abesten dugu. Estilo anitzeko kideak ditugu North Schoolen. Horrek aukera asko ematen dizkigu eta asko aberasten du gure lana.

Esan bezala, raparen barruan estilo ezberdinak daude eta lantzen diren gaiak ere ezberdinak dira. Nolako aldeak daude zuen artean?

"North School kolektibo musikal bat egiteko asmoz sortu zen, baina azkenean harreman estua sortu da gure artean eta familia handia osatu dugu"

M. REK: Bakoitzari musika estilo bat gustatzen zaio eta bakoitzak espresatzeko modu bat du.

ESCO: Eta bakoitzak bere bizitza du! Kontatzen duzuna eta nola kontatzen duzun asko baldintzatzen dute zure bizipenek. Gero, elkartzen garenean sortzen dena ere polita da. Adibidez, Sobarekin egin genuen cypherra jendeari asko gustatu zaio. Bertan guztiok abesten dugu, bakoitzak bere estiloarekin, eta ederra da.

M. REK: Hori ondo dago. Guztiok beti berdin abestuko bagenu, gauza berdinak egingo genituzke beti eta artista, pertsona eta kolektibo moduan ez zen batere aberasgarria izango.

Urte hauetan artista eta kolektibo moduan eboluzioa izan duzuela igarri duzue?

RENK C.A: Bai, azkeneko bi urteetan asko eboluzionatu dugula esango nuke. Gehiagotan elkartzen hasi gara, estudioa sortzeko proiektuarekin gure jarduna gehiago estutu dugu eta hori asko igarri da.

M. REK: Estudioa sortzeak asko lagundu digu artista moduan hobetzeko. Orain nabestiak egiteko tokia dugu, bertan gaudenez gauzak hobeto irteten dira, gauza berriak probatzeko aukera gehiago ditugu, eta abar.

RENK C.A: Orain, adibidez, edozein egunetan etorri gaitezke estudioa. 3-4 orduz tontoarena egiten eta probatzen egoten gara bertan, eta asko ikasten dugu.

Ahotsa eta ordenagailuarekin sortutako erritmoak erabiltzen dituzue musika egiteko. Baina ez da horren sinplea, ezta?

ESCO: Horren atzean mundu handia dago.

KATXO: Ekoizleek demaseko meritua dute. Ordenagailua parean eduki eta hainbeste botoi ikusita, galdu egiten naiz (barreak).

M. REK: Idazteko eta marrazteko moduan, musika ekoizteko bokazioa behar da. Batzuk erraztasuna dute horrelakoak egiteko eta hori da gakoa, bakoitzak bere gaitasunei zukua ateratzea.

RENK C.A: Rapa ikasteko autodidaktak izan gara. Rapa entzuten ikasi dugu musika egiten, inork ez digu esan hau horrela edo beste modu honetan egin.

M. REK: Ez gara solfeora joan (barreak).

"Ez dugu irakaslerik izan, baina lagunak bai, eta asko ikasi dugu elkarrekin. Batak besteari aholkuak ematen dizkio eta funtzionatzen du"



"Bideoklipak beste forma bat ematen dio abestiari, osatu egiten du. Letrekin edo musikarekin espresatu ezin duzun zerbait esateko balio dezakete irudiek"

Beno, rapak beste esentzia bat du, ez? Kaleko esentzia.

M. REK: Esentzia norberak du.

ESKO: Ez dugu irakaslerik izan, baina lagunak bai, eta asko ikasi dugu elkarrekin. Batak besteari aholkuak ematen dizkio eta funtzionatzen du.

M. REK: Zerbait lortu nahi baduzu, behin eta berriz saiatu behar zara gauzak egiten. Batzuetan, orri asko idatzi ondoren, idatzitakoa errepasatu eta kaka bat iruditzen zaizu. Orriak zaborrontzira botatzen dituzu, baina berriz hasten zara. Ondo pasatzea eta egindakoarekin ondo sentitzea da garrantzitsuena.

Musikaz gain, irudiari garrantzia ematen diozue bideoklipak sortuz eta abar. Zergatik?

RENK C.A: Inguruko jendeak egiten dizkigu bideoak. Batzuk guk geuk mobilekin grabatu ditugu, baina editatzea beste kontu bat da, jakin egin behar da.

M. REK: Ikus-entzunezkoak oso garrantzitsuak dira, kontsumitzen den musikaren erdia bideoklipak direlako. Gaur egun, disko bat saltzeko obra bisual bat egin behar duzu.

RENK C.A: Gainera, bideoklipak beste forma bat ematen dio abestiari, osatu egiten du.

M. REK: Letrekin edo musikarekin espresatu ezin duzun zerbait esateko balio dezakete irudiek.

Eibarrek paisaia egokiak eskaintzen ditu rap abestien bideoklipak egiteko?

M. REK: Abestien araberakoa da hori. Balada bat baldin baduzu, agian fabrika artean grabatzea ez da egokiena; baina zerbait raperoagoa bada, toki ilunak eta itxiak ondo egon daitezke. Behar duzuna bilatu behar duzu eta toki guztiek dute bere ukitua.

ESCO: Soba kolektibokoek asko lagundu digute bideoak egiteko orduan.

Beraz, probetxugarria da beste kolektiboekin duzuen harremana?

M. REK: Gure artean elkar laguntzen ez bagara, ez dakit nork lagunduko digun.

RENK C.A: Berrelikatu egiten gara eta guztion artean errazagoa da.

KATXO: Hor ikusten da komunitatearen garrantzia. North School zortzi laguneko taldea baino gehiago da.

Kolektiboaren barruan publikoa sartu duzue lehen. Nolako jarraitzaileak dituzue?

ESCO: Denetarik dago, baina orokorrean pertsona berdinak etortzen dira kontzertuetara.

KATXO: Hala ere, pandemiak dena zaildu du. Mugak egon dira, kontzertuak nahiko goiz eskaini behar genituen... Ez da gauza bera arratsaldeko 17:00etan jotzea edo 22:00etan.

Nolakoa izango da biharko saioa?

KATXO: Kontzertua eskaintzeko gogo asko dugu. Ikuskizun ona eman nahi dugu. Ez gara banan-banan irtengo, inoiz elkar aritu izango ez bagina moduan. North School bezala irtengo gara eszenatoki gainera eta binaka, hiru edo dena delakoa abestuko dugu.

Bideoa ikusi nahi?

Elkarrizketa honen **BIDEOA** YouTube*n* ikusi daiteke.



Arrate Eibar Eskubaloiko taldeek sasoi betean jarraitzen dute

>>> Maila ikaragarria dihardute ematen gure herriko eskubaloiko taldeetako jokalariek eta azken jardunaldian ere gauza izan dira ia partidu guztiak irabazteko. Asteburu zaila zuten lehen bi taldeek, baina jakin izan dute gutxi espero zutena egiten. Emakumezkoen taldea, esaterako, orain arte bere multzoan partidu guztiak erraz irabazitako Basauriren kantxan 26na berdintzeko gai izan da, eibartarrek maila berria jokatzen duten lehen denboraldian. Emaitza horrekin Arrate Eibarkoek bizkaitarrengandik bi puntura jarraitzen dute Euskal Ligaren azken fasean eta Bera Bera gerturatu zaie orain pun-



Asier Urainek maila bikainean dihardu jokatzen azken neurketetan.

tu bakarrera. Gizonezkoen kasuan, 1. Nazional Mailako taldea sendoago dugu sailkapenaren lidergoan hirugarren sailkatuari Zaragozan 25-32 irabazi eta

gero. Goraipatzekoa da beste behin Fernandorenek egindako talde-lana, hamar jokalarik gutxienez gola sartu zutelako; hala ere, Asier Urain izan zen

goleatzaile nagusia, zortzi-rekin. Senior mailako beste bi taldeak ere garaile izan ziren jokaturako neurketetan: nesken 25-28 nagusitu zitzaion Irunen Txingudiri eta mutilenak 34-22 garaitu zuen Escopios Ipuruan.

Harrobiari dagokionez, kadete mailako hiru taldeak irabazle izan ziren; infantil mailako lauretatik hiruk euren partiduak aurrera atera zituzten eta, galdu zuenaren kasuan ere, gol bakarrarengatik izan zen; eta, azkenik, jubeniletan nesken taldeak 23-20 irabazi zion Sinergia Oriori eta mutilenak 26-32 galdu zuen Tolosarekin.

Binakako txapelketaren azken jardunaldiko azken jaialdia hartuko du etzi Astelenak

>>> Aspe enpresako Jokin Al-tunak eta Julen Martijak osatutako bikoteak Baikoko Unai Lasok eta Ander Imazek osatutakoari egingo dio aurre datorren domeka arratsaldeko jaialdiaren partidu nagusian. Aspekoek aurkariak baino puntu bat gehiago dute, eta baita aukera gehiago ere zuzenean

finalerdietarako sailkatzeko. Partidua garrantzitsua da aurreko postuetako ordena erabazteko orduan, batez ere lehenengo fasearen azkena izango delako. Aurretik, jaialdiarekin hasteko, promozio mailako txapelketaren partidua jokatuko da, Alberdi-Uriondo eta Egiguren-Galarza bikoteen



Unai Lasok giro beroko partiduak eskaini ditu aurretik ere Astelenan.

artean. Amaitzeko, bestalde, Aitor Elordi eta Oier Etxebarriari Pello Etxeberria eta Iñigo

Bikuñari egingo diete aurre. Txapelketako partidurako pilota-aukeraketa atzo egin zuten.

Eibar FT-ko emakumezkoen bigarren eta hirugarren taldeak lider postuetan

>>> Iberdrola Ligan jokatzen duen talde nagusia ez bezala, atzetik datozen beste talde biak oso indartsu daude, euren sailkapenetan argi eta garbi aginduz. Emakumezkoen Euskal Ligako Eibar B liderra da sail-

kapenean, bigarrenari bederatzi puntuko tartea kenduz; eta gauza bera esan dezakegu Erregional Ohorezko Mailako taldeari dagokionez, azken hau bost puntuko aldearekin baita-go sailkapenaren gorengoan.



Eneko Kortak zilarra irabazi zuen Gipuzkoako txapelketan

>>> Hilaren lehenengo asteburuan Legazpiko Unbeltz frontoian jokaturako judoko infantil mailako Gipuzkoako txapelketaren lehenengo fasean, Kalamua klubeko Eneko Kortak maila altuko lehiaketa egin zuen, azkenean sailkapeneko bigarren postuan amaitzeko.

Pello Osorok neguko triatloiko Espainiako txapela jantzi zuen beste behin “Valle de An

>>> Eibartarrak modalitate horretan zein ondo moldatzen den erakutsi zuen Valle de Ansó triatloi-proban jokoan zegoen Espainiako elite mailako txapelketan. Mayencos klubak antolatutako neguko triatloi-proba hori Linzako gunean amaitu zen eta helmugan ia minutuko aldea (57 segundo) atera zion Osorok Xabier Orduna bigarren sailkatuari, eta minutua eta 4 segundo Fernando Zorrilla hirugarrenari. Pellok, dena dela, ez zuen erraza izan garaipena

eskuratzea: hasieran antxintxiketan egin beharreko 7 kilometroren ondoren Zorrillak eta Ibergallartuk minutua kentzen zieten Osoro eta Joan Freixa azken txapeldunari, BTT gainean errepidetik egindako bigarren txandaren amaieran alde berearekin jarraitzen zuten lehengo biek, eta iraupen eskiko modalitatean egindako azken tartean lortu zuen eibartarrak sailkapena irauli eta helmugan lehena izatea, ordubete, 30 minutu eta 53 segundoko denbo-



Osoro eibartarra erdian, podiumean lagundu ziotenekin.

rarekin. Ordunak ere atzetik aurrerako lan bikaina egin zuen, bigarren postua bereganatu eta Zorrilla, Freixa eta Ibergallartu-

ri aurrea hartuta. Emakumezkoen lasterketan Enara Oronoz izan zen onena, Marta Borbon eta Cristina Araren aurretik.



38 mendizalek osatu zuten Aramaiotik Leintz-Gatzagarainoko ibilbidea

>>> Aurreko zapatuan egin zuten Klub Deportiboko mendi batzordekoek prestatutako Deba Bailarako bosgarren etapa, Aramaioko Ibarrik irlanda gorantz iparraldera jotzeko. Tellamenditik Zabalhandirantz doan pistatik abiatuta, 1.037 metroko Izipitze mendia gainditu zuten eta, handik jaisterakoan, San Martin apaiz gerrilariaren izkutalekua izandako kobazuloa

ikuskatu zuten. Izipiztera igo ez zutenekin bat egin eta gero Orixolerako igoerari ekin zioten. Han goitik ikuspegi ederraz gozatu ondoren, “jaisterakoan Santikurutzeko baseliza zoragarria bisitatu genuen, Kruzetako mendatera jaitsi baino lehen”. Eskoriatzatik Gatzaga gainera doan errepidera behin iritsita, hura gurutzatu eta goitik behera herrira heldu ziren etapa horrekin amaitzeko.

Aurreko astean aurkeztu zuten Arraten amaituko den Euskal Herriko Itzuliaren ibilbidea

>>> Hondarribiko udaletxean egin zen ekitaldian, Julian Eraso astebeteko lasterketa hori antolatzen duen OCETAko presidentearekin batera Txomin Sagarzazu bertako alkatea eta Roberto Laiseka Itzuliaren zuzendari teknikoa izan ziren. Aurkezpenean azaldu zuten, lasterketaren 61. edizioa kostaldeko herri horretan hasiko da, erlojupeko batekin, eta Arrateko santutegian amaituko. Apirilaren 4tik 9ra jokatu den

Euskal Herriko Itzuliak 882 kilometro izango ditu eta profesional mailako txirrindulari onenak bilduko ditu irteeran, “Tour laburrago bat bizitzeko itxaropenarekin”. Hondarribia, Viana, Amurrio, Zamudio, Mallabia eta Arraten izango dira sei etapa horietako helmugak; azkena izango da etapa nagusia eta, ohiko bidetik jota, “kilometro gutxitan ahal diren gain gehienak igoko dituzte txirrindulariek”.



Julian Eraso, Sagarzazu, Javier Riaño eta Roberto Laiseka aurkezpenean.

Urbatek ezin izan zuen bere zortzigarren titulua jarraian irabazi

>>> Gizonezkoen Urbat-Urko-tronik waterpolo taldeak oraingoan txapeldunorde izatearekin konformatu behar izan du, Euskal Herriko Kopako finalean Askartza B taldearekin 13-9 galdu ondoren. Aurreko zapatuan Sestaon jokaturako lauko finalean, eibartarrak anfitrioei 4-9 gailendu zitzaizen finalerdiko partiduan, baina oraingoan finalean amore eman behar izan zuten Leioako taldearen aurrean.



Master mailako taldeak emaitza interesgarriak eskuratu ditu orain arte.

Urbateko txikienek, bestalde, euren bide ezin zuzenagoari eusten diote, eta kadete mistoen taldeak 18-5 irabazi zuen. Master mailako klubeko betanoek ere garaipen bidetik jarraitzen dute: azkena Logroñon (6-7). Eta apirilean Kroaziako Dubrovnik hirira joango den euskal selekzioarekin izango dira Itsaso Molina, Jokin Laskurain, Euken Kortabarria eta Telmo Malaga eibartarrak.

Porrota eta garaipena errugbikoentzat azken jardunaldian

>>> Ihes egiten dien beste partidatu borrokatu bat jokatu zuten aurreko zapatuan Eibar Rugby Taldeko emakumeek, azkenean Olimpico Pozuelorekin 15-12 galtzeko. Emaitza horrekin, gai-

nera, Cristina Guntinek prestatzen duen taldea bosgarren postura jaitsi da, hau da, Top-4 onenetik kanpo dago orain. Majadahonda da lider (39 puntu) eta Corteva Cocos (37), Pozue-

lo (35), Complutense Cisneros (31) eta Eibar (29) ditu atzetik. Hurrengo jardunaldia martxoaren 6an jokatu da: eibartarrek Sant Cugat hartuko dute Unben. Hor bertan jokatu eta

irabazi zuen aurrekoan Oho-rezko B Mailako Eibar Rugbyko gizonezkoen taldeak (Valtecsari 42-12). Emaitza horrekin eibartarrak bigarren dira, Hernaniren atzetik.

Euskararen sozializazioa eta transmisioa XII. MINTEGIA



- 08:45: Akreditazioa eta material banaketa
- 09:00: Ongietorria
- 09:15: **"101 ELE proiektua. Euskal Herriko aniztasuna eta euskararen balioa integraziorako"**. Idoia Etxeberria, Badihardugu euskara elkarteko kidea eta 101 ELE proiektuko arduraduna.
- 09:55: **"Egunean Behin: jolas bat, hiru datu eta bi gogoeta"**. Josu Azpillaga, CodeSyntax enpresako ingeniaria.
- 10:35: **"Euskara. Kultura, Transmisioa. Ertzetatik. Igo Bolumena!"**, Naroa Jauregizuria, Ahize AEK-ko Aholkularia
- 11:15: ATSEDENA
- 11:45: **"Kantu bat gara"**. Jon Maia, bertsolaria, kultur eragilea eta kultur aniztasunean aritua
- 12:25: **"Asko edo gutxi erabiltzen ote da euskara dagoen ezagutza-mailarako?"**. Iñaki Lurrebaso, soziologoa eta EHUKo irakaslea.
- 13:45: Agurra

Martxoaren 16an

ARMERIA Eskolako areto nagusian


Aurrez aurre zein streaming bidez jarraitzeko aukera

www.etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus
943 20 09 18

Izen-ematea **ZABALIK**
martxoaren 14ra arte



Euskara Elkartea





Eibartarra bizikletarekin ere badabil probatzen azken aldiko hainbat txakur-kros probatan.

<<< **ANDONI MAYO** • txakur-kroslaria >>>

“Txakurrentzat joko modukoak dira lasterketak, asko gozatzen dute korrika egiterakoan”

Domekan jardunaldi berezia izango dugu gurean, Amaña auzoan bereziki. Bigarren aldia da horrelako zeozer hain gertutik ikusteko aukera duguna, orain dela bi urte pasata Arraten ere egin zelako beste lasterketa bat. Gainera, proba honekin amaituko da oraingo Euskadiko Txakurkros Liga, horrek ziurtatzen duen parte-hartze bikainarekin. Eibartarrak ere izango dira tarteko eta, hori aprobetxatuz, Andoni Mayo gure herriko goi mailako ordezkariarekin izan gara. Podiumean izatea ez du baztertzen Dexter txakurraren bikoteak.

Eibarren antolatzen den bigarren txakur-krosa izanda, zergatik azaltzen duzue kar-telean lehenengoa bezala?

Orain dela bi urtekoa Arraten egin genuelako eta oraingoan Amañan prestatu dugulako. Aurrekoan Klub Deportiboa izan genuen lagun antolatze-ko eta oraingoan Amaña es la Cañakoak izan dira inplikatu direnak domekako proba egiteko. Azken batean, bagenuen asmoa txakur-krosa herrira jaisteko eta hori lortu dugu. Au-

rerantzean ere bide horretatik jarraitu nahi dugu eta proba herri-ri finkatzea nahiko genuke. Unbe ingurura eramatearena ere hor dago... Hurrengo edizioetan ikusi behar.

Zenbat parte-hartzaile aurreikusten duzue gutxi gorabehera?

80 kirolaritik 100era izango dira, seguru. Astelehenerako 60 ziren izena emandakoak. Gainera, aurtengo Euskadiko Txakurkros Ligako azken pro-

ba izango da gurea. Urrian hasi genuen Liga hori eta aurreko asteburuan Hondarribian jokatuko genuen bederatzigarren proba, azkenaurrekoa. Eibarren Liga amaitzeak sari-banaketa ekitaldia luzatzea ere ekarriko du, probaren beraren emaitzen arabera sarietatik kanpo Ligaren azken sailkapenei dagozkienak ere banatuko direlako. Ziriako Agirre kalean, Amañako plazaren erdigunean, hasi eta amaituko da proba.

Zenbat proba jokatuko dira guztira?

Probei dagokienez, benetako lasterketaren hasiera goizeko 11:00etarako dugu iragarritaria. Sei kilometroko luzera izango du eta igoera metatua 300 metrokoa izango da; hori da kirolariek gainditu behar dutena euren txakurrez lagunduta. Behin proba nagusia amaituta, haurren lasterketari ekingo diogu, 12:30ean, eta hor edozein umek hartu ahal izango du parte, txakurra izan edo ez.

Lasterketa txiki hori Ospitaletik Amesti tabernaraino doan Berdintasunaren Pasealekuko zati horretan egingo dugu. Azken batean, jendea animatzeko egiten dugu, horrelako lasterketak herritarren artean zabaltzeko.

Aurretik, dena dela, goizeko 08:30ean albaitari kontrola duzue. Txakurrek kontrol berezirik pasatu behar izaten dute?

Ez da gauza berezirik eskatzen; baina, jakina, gutxiengo batzuk betetzea beti komeni da. Txerto batzuk hartu dituzten begiratzen da eta, horrez gain, ea txakurrak egoera onean dauden. Bestalde, erabiltzen dugun materiala ere begiratzen dute. Behin guzti horretatik pasatuta, 10:30ean lasterketa aurreko bilera egingo dugu, gauzak zehazteko eta sortu daitekeen edozein zalan-tza argitzeko.

Eibartik zenbat izango zarete parte hartzen?

Nirekin batera, Sonia Dominguez, Unai Fernandez eta Josu Villar izango dira. Kirol honetan ere orden horretan hasi ginen: ni izan nintzen aitzindaria, Soniak jarraitu ninduen, eta Unai eta Josu geroago hasi dira, baina badoaz esperientzia hartzen.

Zein asmorekin hartuko duzu domeka goizeko proba? Jaio-terria izanda, erantzukizun gehiago akaso?

Euskadiko Txakurkros Ligako sailkapenean, laugarren edo bosgarren nago orain. Eta gustatuko litzaidake orain dela

bi urte eskuratutakoa, hau da, podiumean sartzea lortzea berriro ere. Orduan hirugarren geratu banintzen, ea lasterketa ona ateratzen zaigun antzerako emaitza lortzeko.

Zuk zeuk zenbat urte daramatzazu txakur-krosean?


Lau-bost izango dira dagoeneko. Zeus txakurrarekin hasi nintzen eta orain Dexter-ekin hartzen dut parte. Ondo konpontzen nintzen harekin eta bikain nabil gaurkoarekin ere.

Zelan entrenatzen duzue? Txakurrek prestaketa berezia eskatzen dute?

Bakoitzak bere estiloari jarraitzen diola esango nuke, ez dago guztiok jarraitzen dugun gidalibururik. Ni txakurra solte eramatearen aldekoa naiz, erosoago sentitzen naiz eta baita bera ere. Berak badaki tiratzen tiratu behar duenean; gainera, txakurrentzat probak jokoa dira, gisa horretara hartzen dituzte lasterketak, besteei jarraitzeko modura, ez gehiagorik.

Bizikleta gaineko probetan ere hasi zara azken aldian. Bide horretatik jarraitzeko asmoa duzu?

Probatzen hasi eta gustura nabil. Eta jarraituko dut, zergatik ez? Aixolako urtegiaren inguruan, han gainean ibiltzen naiz askotan, baina hemen inguruan ez dugu aukera askorik, leku aproposen falta nabaria da. Ikasten dihardugu, baina zailagoa da txakurrentzat.



Entrenatzeko saioetan txakurra solte eramatearen aldekoa da Andoni Mayo.

Zein arrazatako txakurrak dira aproposenak txakur-krosarako?


Guztiekin balio dute, korrika egiteko prest ez dagoen txakurrik ez baitago. Hori bai, arnas-kontuei ere erreparatu behar diegu, eta arlo horretan mutur planoak dutenek, bull-dog-ek eta halakoek, arazoak izan ditzakete. Brakoak ikusten ditut nik aproposen, Dexter ere arraza horretakoa da, baina badira gero eta nahasketa gehiago arlo horretan ere. Garrantzitsuenak bizkorra eta iraupen askokoa izatea da, askoz hobeto moldatzen dira halakoak. Hor ere bakoitzak ikusi behar du zeinekin moldatzen den egokien, aldapetan ere gorantz izan, edo beherantz, ez delako gauza bera... Batez ere, 30 kiloko txakur handia baduzu. Setter-aketa pointer-ak ere asko ikusten dira, baita collieak ere.

Eta ehunetan neurtzen hasita, zenbateko pisua edo meritua emango zenioke txakurrari horrelako lasterketetan? Zuona baino handiagoa?

Aldapa goran %80 bai behintzat. Ondo tiratzen badu, oinkada handiagoak ematera behar-tuko zaituelako. Egia esateko, tenperatura zenbatekoa den ere garrantzitsua da horrelako probetan, eta txakurrentzat ere egun guztiak ez dira berdinak izaten. Berbarik egiten ez dutenez... Zuk erreparatu behar diezu horrelako kontuei. Eurek %100 emango dute beti; zuri jarraitzea tokatzen zaizu.

Zer esango zenieke modalitateaz jakinmina izan eta lehen urrats hori emateko beldurrez daudenei?

Kentzeko beldur hori, askotan ezjakintasunak sortutakoa delako. Probatzeko, ezizateko beldurrik. Txakurrek ere bikain pasatzen dutela, gustura ibiltzen direla, jokoa balitz hartzen dutelako. Gero eta zabalduago dagoen kirola da, gero eta herritartuago bihurtzen diharduena. Etzi Amañan gertu-gertutik ikusteko parada bikaina eskainiko dugu, Euskal Herriko onenak tartean daudela.



Eibartarrek itxaropentsu begiratzen diote domekako probari.



Laguna topatzeko ez da gauza hoberik. RAMON BEITIA



Euskeraz primeran! neguko merkealdien azokan izan da

>>> Aste honetako eguazten, eguen eta barixakuan Toribio Etxebarria kalean egin den Neguko Merkealdien azokan izan da ...eta kitto! Euskara Elkarte Euskeraz primeran! ekimenarekin, “merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera bultzatzeko asmoz”. Elkartearen mahaira hurbildu zirenek hainbat dinamikan parte hartzeko aukera izan zuten: “Aurten ere alderdi ludikoa eta herritarren inplikazioa uztartu nahi izan ditugu. Hainbat hitz-joko proposatu dizkiegu eta, behin hori eginda, euskararekiko hartuko duten konpromisoa idatzi ahal izan dute koadernotxo batean”. Horrekin batera Euskeraz primeran!-eko poltsak banatu zituen elkarteak. Bestalde,

gaur eguerdian egin dute Eibar Merkatalgune Irekiak emandako 100 euroko erosketa-txartelaren zozketa. Hurrengo asteko alean emango dugu irabazlearen berri.

Euskeraz primeran! ekimena 2016. urtean jaiotzen ...eta kitto!-ren eskutik, Eibar-ko merkataritzan eta ostalaritzan euskara sustatzeko helburuarekin. Hori horrela, hainbat ekimen antolatzen ditu elkarteak urtean zehar. Iaz janari-dendetarako eta tabernetarako hainbat horma-irudi banatu zituen, dendari, ostalari eta bezeroen arteko euskarazko harremana errazte aldera, eta udaberrirako beste bat ari da prestatzen, oraingoan zapata eta osagarriak saltzen dituzten establezimenduentzat.



Txikitto!ko otsaileko alea kalean da

>>> Joan den astean banatu zuen ...eta kitto!-k Txikitto! hilabetekariaren otsaileko alea. 16 orrialdetan denetarik eskaintzen digu oraingoan ere: denborapasak, txistek, bitxikeriak, amama eta ilobaren arteko elkarrizketa interesgarria, eskularen txokoa, ipuina... Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietan banatzen da hileroko Txikitto! LH 1. eta 6. mailako ikasleen artean. Hurrengo alean, martxokoan, aratosteek beteko dute aldizkariaren zati handi bat.

Barixakuak Jolasian Torrekuan izango da gaur

>>> Gaurkoan Torrekuara helduko dira Barixakuak Jolasian ekimeneko jolasak. Arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara HH3 eta LH2 mailen arteko umeentzat jolasak antolatuko ditu ...eta kitto!-k lau begiralaren laguntzarekin.

Argazkiz apaindutako kutxak egin dituzte Illunabarrian programan

>>> Eskulan-arratsalde bikaina pasa zuten joan den martitzenean ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzara gerturatu zirenek. Izan ere, argazkiak transferitzen ikasteko ikastaroa antolatu zuen elkarteak Illunabarrian programaren barruan, eta horretan jardun zuten dozena bat lagunek.

Ez da teknika zaila baina pazientzia handia eskatzen du. Horretarako, alde aurretik editatutako eta inprimatutako argazkiak erabili zituzten, eta kola berezia erabiliz irudia egurraren gainera transferitu zuten, euren kasuan egurrezko kutxa batean.





Eguen Zuri Argazki Lehiaketa antolatu dute Kultur

Arrate Kultur Elkarteak XXIV. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa antolatu du, "besteak beste, Aratoste edo Karnabaletako oroitzapen fisikoa gera dadin". Lehiaketarako gaia Aratosteak dira eta gai horrekin lotura duten argazkiekin hartu daiteke parte (argazkiek ez dute zertan Eibarko Aratosteetan edo Eguen Zuri egunean egindakoak izan). Nahi duen edozeinek dauka parte hartzeko aukera, zuri-beltzean zein koloretan egindako lanekin. Egile bakoitzeko hiru argazki onartuko dituzte gehienez. Bai argazki bidalketa, bai izen ematea, era digitalean egingo dira, eguen-zuri2022@gmail.com helbidera idatzita (martxoaren 20ra arteko epea dago). Lehiaketarako irudiak JPG formatuan egon behar dira eta ezin dira 6 Megak gainditu. Honakoa eskatuko da: izen-deiturak, NAN

zenbakia, helbide osoa, telefono zenbakia, helbide elektronikoa, argazkiaren zenbakia eta izenburua.

Edizioan askatasun osoa dagoela argitu nahi dute antolatzaileek. Jasotako argazki guztien artean, epaimahaiak 20 aukeratuko ditu eta horietako hiru sarituko dituzte: argazki onenari, 160 euroko saria emango diote; bigarren onenari, 100 euroko saria; eta hirugarrenari, 60 euroko saria. Sariak banatzeko ekitaldia Topalekuan egingo den erakusketaren inaugurazioarekin batera egingo da, apirilaren 7an (eguna), arratsaldetik 19:00etan. Lehiaketari buruzko informazio gehiago eskatzeko, Arrate Kultur Elkartearen bulegoan galdetu, 638284912 telefono zenbakira deitu edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi daiteke.

Udaberriko Kontzertua

Eibarko Txirrindulari Elkartearen denboraldia zabaltzeko, XIII. Udaberriko Kontzertua emango du Eibarko Musika Bandak, domekan, 12:30ean Coliseoan: "Marcha triunfal" (G. Verdi), "Olympic Fanfare and Theme" (J. Williams), "Intermezzo from Cavalleria Rusticana" (P. Mascagni), "The Olympic Spirit" (J. Williams), "We are the Champions" (F. Mercury) eta "Carros de Fuego"



pelikulako soinu banda (Vangelis) joko dituzte.



Youtubera euskarazko edukia igotzen hasi da Euskal-Encodings izeneko komunitatea

Fuskararen erabilera sustatzeko helburua duen irabazi-asmorik gabeko euskal komunitate irekia da Euskal-Encodings. Euren Youtubeko kanalean azaltzen dutenez, "nagusiki ikus-entzunezko materiala sortu zein partekatu egiten dugu foro formatuan: teknikoki P2P sistema erabiltzen dugu, hau da, edozein erabiltzailek igo dezake edukia komunitatera eta eduki hori edonork jeitsi dezake. Gure arauetan ikusi ahalko duzunez, Euskal Herriko ekoizleei kalterik ez egiteko dugun bo-

rondatea dela eta, irizpide batzuk kontutan hartzen ditugu, eta hori dela eta, ez dugu edozer plazaratzen utziko".

Arauk betetzen direla ziurtatzen dituzten 11 administrazioailek osatzen dute Euskal-Encodingsen muina, laguntzaile eta ekintzaile gehiago ere dauden eta izan diren arren.

Plataformak berak baimentzen dien erritmoan hasi dira edukia igotzen, gehienez 15 bideo egunean. Eta horrez gain, beste batzuek publikatuta duten edukia baliatuko dute erreproduktzio zerrendak egiteko.



Aratoste Zapaturako jaialdia egingo dute Gaztetxean

Eibarko Gaztetiak hainbat jarduera antolatu ditu Aratosteak ospatzeko. Aratoste Zapaturako (otsailaren 26rako) prestatu duten egitaraua 19:00etan hasiko da, gaztetzeko terrazan egingo duten mojito jaia-

rekin. Gero, 22:00etan, The Red Army eta Loracephunk taldeek kontzertuak eskainiko dituzte eta, amaitzeko, 00:00etatik aurrera DJ-ak egongo dira jaia girotzen, goizaldera arte. Sarrerak 5 euro balio du.



Kezka dantza taldearen koko-dantzekin hasiko dira Aratosteak

Kezka dantza-taldekoen eskutik, bihar koko-eskea eta koko-dantzak egingo dira, goizean goizetik Aratosteak ospatzen hasteko. Aurten Gorosta eta Mandiola auzoetako baserrietara eramango dituzte koko-dantzak eta kokomarruak, baina aurretik, betiko lez, Merkatu Plazako baserriarren aurrean eskainiko dute eguneko lehen emanaldia, 08:30ean. Jarraian, 09:00etatik 15:00etara bitartean ibiliko dira Gorosta eta Mandiolako baserrietan. Aurreikusitako ibilbideari jarraituta, hauek dira bisitatuko dituzten baserriak: Orbea,

Eskaregi, Agirregainekoa, Agirreazpikoa, Azaldegigainekoa, Nagiorbe, Nagiorbebekoa, Boneta, Sagarbieta, Azpiri, Mandiolagainekoa, Mandiolazpikoa eta Arlaban.

Arratsaldean, berriz, herriko kaleetan arituko dira kokomarru eta koko-dantzariak: 18:00etatik 18:45era Errebal Plazan elkartuko dira kokomarruak, koko-jantzeko. Eta 19:00etatik 21:00etara bitartean Eibarko erdigunean ibiliko dira (anbulatorioko parkea, Zuloagatarren, Toribio Etxebarria, Untzaga, Calbeton eta Eibarko Bizikleta Plaza inguruan).



BIDEOA
IKUSTEKO



XVII. mendeko doinuak San Andres elizan

Historiari buruzko gauza interesgarri asko kontatu zituen Jon Bagués musikologoak aurreko zapatuan, San Andres elizan eman zuen hitzaldian. Abenduaz geroztik, XVII. mendeko kantu-liburu handi bat dago

ikusgai, aldarearen alboan, zabal-zabalik, eta musika-artxi-bozaina horri buruz aritu zen berbetan. Toledotik kopiatuta etorri zen bilduma osatzen duten 12 liburuetako bat da eta 1673. urtean idatzi zuten.



Izan zaitez Korrika laguntzailea

Euskalduntze-alfabetatzerako bitartekoak eskuratzea eta euskaltegien zein gau-eskolen lana sustatzea da Korrikaren helburu garrantzitsuenetakoa eta, beraz, 22. Korrikak jasotzen duen dirua Euskal Herri osoko gau-eskolei eta euskaltegiei laguntzeko erabiliko da. Horregatik, Korrika laguntzaileak Korrikaren zutabe nagusietakoa direla gogorarazi nahi dute Eibarko AEK euskaltegiekoek, eibartarrak Korrika laguntzaile izatera animatzeaz gain: “12 euroren truke, Korrikako pina eta txartela jasoko dituzu, asteroko zozketetan parte hartuko duzu eta deskontua edukiko duzu hainbat lekutan”. Informazio gehiago izateko, galdetu AEK euskaltegian, 943201379 zenbakian edo Interneten begiratu.

Aratosteetako lehiaketa tabernetan

Aratosteetan ondoen apainduta-ko taberna aukeratzeko lehiaketa antolatu du Udalak, lokala apaintzen duten Eibarko ostalaritza-establezimenduentzat. Izena emateko epea otsailaren 18an zabaldu eta 24an amaituko da. Internet bidez eman beharko da izena, Udalaren web-orrian dagoen formularioko datuak beteta (eskatzailearen datuak, tabernaren izena eta gaia adierazi beharko dira). Parte hartzera animatzen direnen artean hiru sari banatuko dituzte: 300 euro “txispa” gehien duen tabernari; 300 euro tabernarien koko-jantzi onenari; eta 400 euro eta Udalaren garaikurra taberna onenari.



Eskuz egindako artelanak

Gaur arratsaldean, 16:00etan, zabalduko dute “Kartoihalak” (kartoiak + oihalak), eskuz egindako artelanen erakusketa Topalekuan. Otsailaren 27ra arte egongo da ikustera joateko aukera, astegunetan eta zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:15era; eta domeketan, 10:00etatik 14:30era.

13 animalia irudi bakar batean


ondo fijatzen bazara, honakoak aurki ditzakezu:

ELEFANTEA / ASTOA / TXAKURRA / KATUA

OILOA / XAGUA / DORTOKA

IZURDEA / KROKODILOA / GANBA

ARRAINA / SUGEA / ELTXOA



Aita batek lau aldiz du bere alabaren adina.
Eta 20 urtetan alabaren adinaren bikoitza izango du.
Zenbat urte dituzte aita eta alaba horiek?

ERANTZUNA: 40 eta 10 urte

	1				2			
			7	2			3	
			3	4		7	1	6
					8	6		
7				2				5
		4	6					
5	2	9		8	3			
8			9	1				
		1						9

8	8	5	2	4	1	7	0
2	9	7	1	9	6	2	0
7	9	1	6	9	0	7	0
1	2	8	2	0	9	4	0
0	6	7	2	1	9	7	2
7	2	9	0	0	0	2	1
0	1	4	0	7	0	0	2
6	7	0	0	1	2	9	6
0	7	2	0	0	5	9	2
0	7	2	0	0	5	9	2

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

soluzioa

7	0	0	0	2	0	1	2	0
0	6	7	2	1	9	2	9	9
2	1	9	7	2	0	6	0	0
0	7	2	1	9	9	4	0	6
0	2	0	0	7	0	1	0	0
0	9	1	6	9	0	1	0	2
0	2	0	2	0	0	1	0	1
7	0	0	0	1	0	2	0	2
1	0	0	0	0	0	0	0	7
1	0	0	0	0	0	0	0	7

	6			2			1	
2				6			3	
1			3			9	6	
4	2				5	1		
		7	6				4	3
8		9			4			2
	4			1				5
5			9					8

Otsailak 18/24

BARIXAKUA 18

FACTORING

10:00/20:00 Eibarko Merkealdien Azoka. Toribio Etxebarria kalean.

INAUGURAZIOA

16:00 "Kartoihalak" (kartoiak+oihalak), eskuz egindako artelan erakusketa. Topalekua.

TOPAKETA

18:30 Eragin Guneetan Murgilduz: "Lidergo bizigarriak eraikitzen" (Entreamigos-Lagun Artean, Nalua eta Matraka taldeen eskutik). Arrate Kultur Elkartea.

ZAPATUA 19

KOKO-DANTZAK

08:30 Kezka dantza taldeko koko-dantzari eta koko-marruen emanaldia. Merkatu Plaza. **09:00/15:00** Mandiola eta Gorostako baserrietan. **19:00/21:00** Eibarko kaleetan.

ANTZERKIA

17:00 "Perez sagutxo" (Glu Glu Producciones). 5 euro. Coliseo antzokia.

KIROLA FAMILIAN

17:30 HH-ko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

ZAPATUKO IPUINA

18:00 "Berdin eta desberdin mila ipuin". Ipuin musikatuak, Badut Taldearen eskutik (Anduriña eta Txefo). Portalea (areto nagusia).

MUSIKA

20:00/21:30 North School, rap/hip-hop musika jaialdia. Doan (gonbidapenarekin). Errebal Plazia.

DOMEKA 20

TXAKUR-KROSA

11:00 I. Eibarko Txakur-krosa. Lasterketaren irteera. **12:30** Haurren lasterketa. **13:00** Sari-banaketa..

KONTZERTUA

12:30 XIII. Udaberriko Kontzertua (Txirrindulari musika), Eibarko Musika Bandaren eskutik. Coliseo antzokia.

KIROLA FAMILIAN

17:30 HH-ko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia..

DOMEKAK KIROLIAN

17:45/19:45 Kirola eta jolasak, 8-11 urte arteko haurrentzat. Ipurua kiroldegia (kantxa berdea).

MARTITZENA 22

IBILBIDE OSASUNTUAK

10:00 Herritar guztientzat zabalik, 5 kilometro inguruko ibilbidea, Minbiziaren Kontrako Elkartek antolatuta. Elkartearen lokaletik abiatuta (Ardantza, 11).

HERRI UNIBERTSITATEA

12:30 "Covid ziurtagiriak areagotutako kontrol soziala" (GKSko bi militante). San Andres aretoa (Hezkuntza Esparrua).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "El veneno del teatro" hitzaldi-solasaldia, Ramon Barea eta Mikel Losadarekin. Coliseo antzokia.

EGUAZTENA 23

HERRI UNIBERTSITATEA

12:00 "Energia berdeen eta teknologiaren mamua" (gaztelera), Julen

Mailharinen eskutik. **17:00** "Etxebizitzaren problematika lantzen" (Eibarko etxebizitza asanblada). San Andres aretoa (Hezkuntza Esparrua).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "El viaje a ninguna parte" (Fernán Gómez Antzokia/Bilboko Arriaga Antzokia). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokia.

EGUENA 24

HERRI UNIBERTSITATEA

12:30 "Krisi ekologikoaren auzia gaur egun, jatorria eta etorkizuna" (Mikel Izurieta). San Andres aretoa (Hezkuntza Esparrua). **14:30** Bertso bazkaria (tiketak 6 eurotan salgai hitzaldietan bertan). Unibertsitateko egoitzan.

ODOL-EMATEA

16:30/20:30 Odola ematera joateko saioa. Untzaga jubilatutua.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Magallanes y Elcano. El viaje" (Ajidanha. Portugal). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokia.

ERAKUSKETAK

Otsailaren 20ra arte:

– "CORNALES, COLLARES, URTAROAK, NÁBULAS Y OTRAS OBRAS", Josué Pena (Portalea)

Otsailaren 27ra arte:

– "KARTOIHALAK" (kartoiak-oihalak), eskuz egindako artelanak (Topaleku)

Otsailaren 28ra arte:

– "ARGIZAIOLA 2020" argazkiak (Depor taberna)
– BAKARNE ELEJALDEren argazkiak (Portalea jatetxea)

ESKUALDEKO agenda

SORALUZEN

ANTZERKIA

18an (barixakua) / 19:00 Soraluze Antzokia "Olatu arteko txalupa arraroa". Joseba Sarrionandia eta Ines Osinaga.

ERMUAN

ANTZERKIA

18an (barixakua) / 20:30 Ermua Antzokia "Mi hijo solo camina un poco más lento". Tanttaka taldea.



KONTZERTUA

19an (zapateria) / 20:00 Lobiano Kultur Etxea The Cinelli Brothers. Soul & Blues from UK.



DEBAN

BISITA GIDATUA

20'an (domeka) / 12:00 Debako Turismo Bulegotik "Flyscht Beltza". Iraupena: ordu eta erdi. Kopuru mugatua: 25 lagun.

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 10
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Eguraldia (euskalmet.net)



Hildakoak

- **Gonzalo Arean Fernandez.** 72 urte. 2022-02-10.
- **Ana Moya Garcia.** 87 urte. 2022-02-11.
- **Cristina Revuelta Pellon.** 2022-02-11.
- **Jesus Izquierdo Abad.** 81 urte. 2022-02-13.
- **Aida Fernandez Arias.** 99 urte. 2022-02-13.
- **Aurora Gorostiza Azpiritxaga.** 93 urte. 2022-02-14.
- **Antonia Atxa Agirregomezkorta.** 100 urte. 2022-02-14.

Jaiotakoak

- **Markel San Martin Sanchez.** 2022-02-6.

Farmaziak

- BARIXAKUA 18**
EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)
- ZAPATUA 19**
EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)
- DOMEKA 20**
EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)
- ASTELEHENA 21**
EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)
- MARTITZENA 22**
EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)
- EGUAZTENA 23**
EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)
- EGUENA 24**
EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)
- BARIXAKUA 25**
EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI, 2022an,
Mendinueta (Urkizu, 6)

Txelu

1. URTEURRENA: 2021 / 02 / 19

“Urte bat zu gabe. Maite zaitugu”

— IDOIA, AITOR ETA IGOR —



JUAN ANTONIO HERNANDEZ MANZANO

2. urteurrena: 2019-02-20

**“Inoiz ez zaitugu ahaztuko.
Betiko egongo zara gure bihotzetan”**

ETXEKOAK



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **IBAI** Aristondo, astelehenian 4 urte beteko dozuz-eta. Maite zaittugu. Zure gurasuen eta amamen partetik.



Zorionak, **MARA!** Domekan 8 urte egingo dozuz-eta. Musu potoluak famelixaren partez. Maite zaittugu.



Zorionak, **IÑAKI!** Etxeko foballarixak 2 urte bete dittu eta. Musu bat famelixa guztiaren partez. Jarraitu alaixa eta jatorra izaten.



MADDItxo, zorionak!!! Atzo 5 urte bete zenduaz-eta. Jarraitu hain alaixa eta maitagarrixa izaten!!! Pillua maite zaittugu!!!



Zorionak, **BEÑAT**, hillaren 21ian 9 urte beteko dozuz-eta. Ondo pasatu eguna, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **UXUE!** Astelehenian 7 urte bete zenduaz-eta! Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Maialenen partez!



Zorionak, **ENE**, atzo 36 urte bete zenduaz-eta. Asko maite zaittugu. Janire eta Mateo.



Zorionak, **ANE** Garcia Murgoitia! 9 urte, txapelduna! Jarraitu beti bezain alai: Musu potoluak famelixaren partez.



Zorionak, **XABI**, mutil haundi, martitzenian 5 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Iraiaren partez!



Zorionak, **JON**, domekan 10 urte egingo dozuz-eta. Etxeko guztien eta, batez be, Malenen partez.



Zorionak, **JABI**, etzi 61 urte beteko dozuz-eta! Aurrejubilatzen zarenez, etapa barri bikaiña izan! Zure lankidiaren partez.



Zorionak, familia! **AMak** (gaur), **PAULek** (hillaren 21ian) eta **AITak** (23an). Otsailla, gure ospakizun hillabetia dalako! Musu haundi bat amatxoren partez.



Zorionak, **ARATZ** eta **MARKEL**, zeuon 2. urtebetetzian. Poza baiño ez dozue geurera ekarri, txikitxuok. Patxo haundixa etxekuen partez.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **19an:** 22:30
- **20an:** 20:00
- **21ean:** 20:30

“El callejón de las almas...”

Zuzendaria: Guillermo del Toro



2 ARETOA

- **19an:** 19:45, 22:30
- **20an:** 17:00, 20:00
- **21ean:** 20:30

“El brindis”

Zuzendaria: Laurent Tirard



ANTZOKIA

- **19an:** 17:00 (1), 19:45 (1), 22:30
- **20an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **21ean:** 20:30

“Muerte en el Nilo”

Zuzendaria: Kenneth Branagh



ANTZOKIA

- **19an:** 17:00 (2 Aretoa)
- **20an:** 17:00

“Buscando a la mágica...”

Zuzendaria: Junichi Sato



Iragarki laburrak



943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisu salgai Sallabenten (Ermua). 3 logela, egongela, sukaldea eta koina. Pisu altua eta eguzkitsua. Bista ederrak. Dena kanpora begira. Tel. 605711422.

1.2. Errentan

- Logela alokagai Eibar erdialdean. Tel. 660378181.
- Pisu hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2-3 logelekoa. Erreferentzia onak. Tel. 667060292.

2. MOTORRA

2.1. Salgai

- Furgoneta bat alokatuko nuke egora onean. Etxe-aldaketa bat egiteko, otsailaren 26tik martxoaren 2ra arte. Tel. 617265575. Avelina..

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da zerbitzari bezala, garbiketarak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 671246723.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko. Orduka. Tel. 74258102.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 747473047.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarak egiteko eta sukaldari-laguntzaile bezala. Baita asteburuan ere. Tel. 631750397.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 693515502.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 637583745.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsalde eta asteburuetan nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 624640803.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta ziurtagiriarekin. Tel. 680526228.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko garbiketarak egiteko eta sukaldari-laguntzaile bezala. Tel. 612297642.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin). Interna. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 617610706.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatria-laguntzaile titularekin. 10 urteko esperientzia eta erreferentziak. Tel. 642709219.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 600836168.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631091264.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile bezala. Tel. 641342619.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Interna. Esperientziarekin. Tel. 632589202.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erizain-laguntzaile, tituluduna. Tel. 660511781.

4.2. Langile bila

- Agente komertziala behar dugu Mapfre-n. Erregistratu zaitez: <https://jobs.mapfre.com/job-invite/20597/>
- Ilea-paintzailea behar da Eibarren amatasun baja bat betetzeko. Apiriletik azarora arte. Tel. 697484245 edo laga curriculuma Bidebarrieta 16an..

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

- Ingeles irakaslea behar da Elgoibar-ko akademia batean. Tel. 667261248.
- Eibarko akademiak euskara eta ingeles maila altuko irakaslea behar du LHko partikularrak emateko. Bidali curriculum: info@itzamna.eus.

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate sarbiderako klaseak ematen dira, goiz eta arratsalde. Tel. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Binirozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688624326.
- Bi armairu salgai, hiru atekoak. 2'20ko altuera, 3,060ko zabalera eta 0'45eko sakonera. Prezioa adosteko. Tel. 688661625.

ek!

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

+ osasun gida

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

 Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Deglutzio atipikoa	TDAH
Disfonia	Berba arazoak
Ikaste-arazoak	TEA
	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

Podologoak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA

 838200124
kolegiatu zabalda

T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

Psikologoak

 **AMETS**
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. blokean
www.centroamets.com

Coro Ortiz de Urbina - Master Praktika Klinikoa
PSIKOLOGOA (G211907 kolegiatu) - Master P.N.L.
Tel. 675 70 68 07 - Trainer

 **PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Okulistak

 **Recalde**
Clinica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikoa

· Miopia ebakuntzak
(femtosegundoko laserrarekin)

Plaza Barria 2, 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



 BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746


PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (125 Kolegiatu zirkua)
Rosario Rodríguez (125 Kolegiatu zirkua)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zirkua)

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

 **Oscar Mondragon Lili**
GUREZ ETA ARRATZALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023

PODOLOGOA

 **Moider Lopez Etxebarria**

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnua. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zirkua

 **PODOLOGO**
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

ERAIKINEN MANTENUA

ITURGINAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnua. 943 12 73 90
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

I.T.E. INGENIEROS
TECNICOS DE
EDIFICACION



INGENIEROS
TECNICOS DE
EDIFICACION

E.I.T.

info@ejtoe.com Tlf. 943 80 38 00
AJT Zhoruzone S.L.
Barrena, 6 - beheko etb.

Miguel Azpiri
ITURGINA

- Konponketak
eta ordezkatzak
ITURGINTZAN
- Konponketak
eta inbenbideak
KALEFAKZIOAN

BEREHALAKO
ZERBITZUA
ematen da

635 13 38 41

AROTZAK

ERREFORMAK

KRISTALAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnua: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA

EBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMOIEN KOORDINAZIOA

ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-

605 713 168

943 744 019

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3.a

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@crystaleriaacha.com

ERAKUSKETA

eta faxa: 943 203 903

Arikitaneko Zubian

IGELTSEROAK

PINTURAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitaín Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnua. 943-120108

www.irazabal.net

baglietto

PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21
Tel: 943 201 922

www.bagliettoeibar.com
bagliettoeibar@kaixo.com

ELEKTRIZITATEA

Tel. 667 54 89 16

THELE CER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
610 532 922 www.thelecer.com



KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.